




## Ganbelak, emari

Zabalarte mendi taldea Aralarko Lakuntzako askak eraberritzen ari da / 20

### ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.



**Zuhatzuko Kontzejua eta Iturmendiko Udala berritzeko hauteskundeak, azaroaren 26an / 9**

**Irurtzango Udalak Nafarroako Gobernua autobus zerbitzua hobetzeko prest dagoela ikusi du / 5**

**Bakaikun estrategia plana baloratu eta egokitzeko parte hartze prozesua martxan / 7**

**Helduak euskaraz egitera eta haurren eredu izatera gonbidatu ditu ekimen batek / 13**

**Iskiza Sakanako jubenilak, Nafarroako Bigarren Mailako Gimnasia Erritmikoko txapeldunak / 18**

**Markos Berazak Espainiako Senior B mailako Enduro Txapelketa irabazi du, bigarrenenez / 19**

### ZUTABEAK



RAF ATXURI / 4



OLAZTIKO GAZTE ASANBLADA / 4



ANNE AZKONA UNANUA / 22



**Etxeberrin bizi den Zigor Gartzia 'Zian' Bertsolari Txapelketan gai jartzailea da / 23**





Lorenzo Ondarra organoa jotzen. UTZITAKOA

# Ondarrari aitorpena

Lorenzo Ondarra konpositorearen Bakaikuko jaiotetxean omenezko plaka jarriko dute. Omenaldi hirukoitza izanen da: Igor Ijorra konpositorearen obraren kudeatzailearen hiltzaldi bat eta Erkudengo Ama Abesbatzaren bere lanen kontzertua izanen dira ere

## Erkuden Ruiz Barroso BAKAIKU

Lorenzo Ondarra Kintana kaputxinoa eta musikaria 1931ko azaroaren 20an jaio zen, Bakaikun, eta duela hamaika bat urte zendu zen, 2012ko apirilaren 4an, Iruñean. Baina bere obra hilez-

korra da, tartean Igor Ijorra Fernandez Iruñeko Orfeoiaren zuzendari etxarriarrak egiten duen obraren kudeaketarengatik. Ijurraren eta konpositorearen arteko harremana aspalditik dator, izan ere, zuzendariaren

amaren familia bakaikuarra da, Ondarratarren aldamenekoak, hain zuzen. "Lorenzo txikitatik ezagutu dut, ez bakarrik auzo-lagunak zirelako, baizik eta noiz-bait kaputxinoetara mezara joaten ginen eta bertan organoa

jotzen zuen, eta Etxarri Aranazko Abesbatzaren organista laguntzailea ere izan zen", Ijorra abesbatzaren zuzendaria zen bitartean. Zenbait kasualtatere bidez, Bakaiku Ondarraren figura eta musika ezagutzeko eta herriak "dagokion tokia eta erre-konozimendua" emateko omenaldia eginen dute bihar, urriak 28, larunbata, 18:15etik aurrera. Ekitaldi hirukoitza izanen da: Bakaikuko Udalak jaiotetxean plaka jarriko du, Ijurrak konpositorearen inguruko hitzaldia emanen du eta Erkudengo Ama Abesbatzaren kontzertua izanen da. Txistulari Taldeak ere parte hartuko du ekimenean.

## Konpositorea

Lorenzo Ondarra Altsasuko Kaputxino Seminarioan sartu zenetik, eliza-ikasketak ez ezik solfeo eta piano ikasketak ere egin zituen. Apaiz bihurtu ondoren, 1954an, Gregorianoa ikasi zuen hiru urtez Gasteizen eta Salamankan, eta Montserrat diziplina hobetu zuen. Organoa eta Konposizioa ikasketak ere egin zituen Tomas Garbizu eta Francisco Escuderoekin, Donostian. Bere ibilbidearen lehenengo saria irabazi zuen: bi espezialitateen karrera amaierako saria jaso zuen.

Ondoren etorri ziren Iruñeko konposizio lehiaketaren saria, Kataluniako Orfeoiarena, Bartzelonako S'Agarokoa, eta Espainiako Arte Ederretako Sari Nazionala, 1969. urtean, Tomas Marcokin batera, *Diálogos para dos sextetos de cuerda y órgano* lanagatik. "Horrekin bakarrik bere mailaren nondik norakoa ikus daiteke". Tolosako Lehiaketa, Bilbokoa, Euskal Herriko txistulariarena eta abar sariak jaso zituen ere. 2011ko Azaroan Nafarroako Abesbatzen Federazioaren eta Euskal Herriko Txistularien Elkartearen urrezko domina jaso zituen. 2012ko Tolosako Abesbatzen Lehiaketako polifonia modalitatean *Pater Noster* Iruñeko Orfeoiak enkargatu eta estreinatutako obra derrigorrezkoa izan

zen, eta 2022ko edizioan Folklore arloan *Bi Gabon Kanta* ere koruek interpretatu behar zituzten nahitaezko pieza izan zen.

1970ko hamarkadan Ondarra Italiako Siena Chigiana Akademiara joan zen, Alemaniako Darmstadt Udako Ikastaroetan eta Würsburgeko ikastaroetan parte hartu zuen, eta 1980ko hamarkadan Suitzako Luzernen eta Austriako Innsbrucken ere egon zen.

XX. mendearen bigarren erdialdeko konpositore garrantzitsuenetarikoa da Ondarra, eta genero guztiak landu zituen. Bereziki ahaztutako partitura zaharrak berraurkitzen zituen eta beste egile batzuen partitura konponketak eta transkripzioak egiten zituen: Olaizola, Elduaien, Aita Donostia, Olazarán, Garbizu eta abar.

## Xumea

Ondarra bere konposaketa lanagatik nabarmendu zen, batez ere musika koralagatik. Erkudengo Ama Abesbatzarendako moldatutako eta sortutako obrak ez ezik, Iruñeko Orfeoiak, Donostiakoak, Kataluniakoak, Etxarri Aranazko Abesbatzak, Easo Abesbatzak, Kana Cantemusek, San Fermin Abesbatzak edo Nafarroako Haur Kantariak koruek ere bere lanak mustu dituzte. Txistuarekin ere lotura berezia izan zuen eta lan "interesgarriak" sortu zituen instrumenturako. "Bizitzan estreinatutako obra gehien dituen musikagile nafarra da". Guztira, 250 obra konposatu zituen, horietatik 160 obra koraleko konposizioak dira, eta musika sakroaren eta euskal musikaren tartean mugitzen zen; hortaz, euskal doinu asko armonizatu zituen, "probintzia gutietakoak, gainera", eta haien artean Sakanako "pila bat, burundatarrak bereziki, baina Etxarrikoak, Arbizukoak, Uhartekoak eta abarrekoak ere badaude".

"Bere prestaketa oso-oso onak ziren. Kontserbatorioetan ikasi, munduan zeuden abangoardia berriak ezagutzen zituen, mu-



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak  
www.ventanasegoki.com

**KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**  
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



sika korala eta orkestrala egiteko gaitasuna zuen... Gertatzen dena da Altsasuko komentuan irakasle geratzean ez zuela denborarik liberaturik egoteko". Pertsona xumea, apala eta "zerbitzu bat" ematen zuena zela azaldu du Ijurra: "Beti aipatzen zuen lehena kristaua zela, gero kaputxinoa eta azkenik musikaria". Horrek bere bizitza baldintzatu zuen: "Ez zuen anbizioren, kristoren musikaria zen, baina bigarren edo hirugarren plano batean bezala gelditu da; gizon oso errespetatua, baina bere musika hedatzeko ez zuen askorik egin". Horregatik, besteak beste, omenaldia egitearen garrantzia. "Ez zaio oihartzunik eman. Berak bizpahiru zuzendariri obrak ematen zizkien, eta hortxe gelditzen zen". Ez zuen ahalegin handirik egin bere musika hedatzeko, "eta hor gaude hedatzeko gogotsu".

Ondarraren musika armonia aldetik "aberatsa" dela azaldu du Ijurra. "Oso elegante, refinatua eta fina", gaineratu du. Abeslarien mailara moldatzen edo egokitzen zituen lanak: "Altsasuko abesbatzak obra bat eskatzen bazion, korua ongi ezagutzen zuen eta beraiendako egokitutako lana sortzen zuen". Hala ere, ahalmena zuen zailtasun oso handiko obrak egiteko, "orokorrean bere musika ez da erraza, ez da musika sinplea. Gauza errazenek ere badute bere muina. Koruei oso samurra suertatzen zaie abesteko". Berak ikasitakoa, ezagutzak eta maila abestietan islatzen da.

#### Errekonozimendua

"Lorenzo Ondarrarekin harremana oso bitxia da. Nire ama bakaikuarra da, eta ondarrarrak amonaren aldamenekoak ziren. Beste alde batetik, Lorenzoren biloba batekin ezkondu nago, nire semeak Ijurra Ondarra dira". Igor Ijurra musikari etxarriarrak "txikitatik" ezagutzen zuen Ondarra, eta ondoren harreman hori "alde profesionalera" ere pasa zen Etxarri Aranzko Abesbatzako zuzendaria zenean, Ondarra organista laguntzaile hasi zenean. "Laguntzen egoten zen". Abesbatzan ere bere lanak interpretatu zituztela azaldu du Iruñeko Orfeoiko zuzendariak. "Abesbatzarekin bere lanak mustu genituen, eta gero Iruñera ere eramane nituen".

Konpositorea 2012an hil zenean bere lana Kaputxinoen esku gelditu ziren, "fraideek normalean hori egiten dute", baina obraren kudeatzailea eta "saltseroa" Ijurra da: "Ni arduratzen naiz bere obrak leku batean eta bestean interpreta daitezten, obraren edizioak egiten, Iruñeko artxi-boaren katalogazioa eta abar eramatean dut".

Urtearen hasieran Ijurra Altsasuko Erkudengo Ama Abesbatzako kideekin harremanetan jarri zen artxi-boan abesbatzak mustutako zenbait obra zeudelako, Ondarrak koruarendako idatzitakoak, baina originalak falta zirelako; kopia "onak" zeuden. "Galdetu nien ea haiek izango ote zituzten eta abesbatzaren artxibora joan ginen. Han ez zeuden". Kruz Mari Martinez Larrea abesbatzako sortzaileetako batekin ere bildu zen, "eta ez zeukan ezta original bat ere. Gelditu ginen ea non egongo ziren pentsatzen". Handik pare bat astera, jarraitu du Ijurra, Pello Iglesias abesbatzako beste sortzaileetako batek eta gaur egungo kideak deitu zion: "Abesbatzari bururatu zitzaizola gustura egingo ziotela omenaldia Lorenzori, jaioterrian, beraiendako egindako obrak interpretatuz". Obra horien artean *Ama Birjina Erkudengoa*, *Adiós a la llanera*, *Matalaz*, *Herribehera*, *Oi Ama Eskualerri* eta *Agur Jaunak* daude. Omenaldirako lehenengo urratsa jarri zuten.

"Lehengusu bakaikuarrak ditut, haien artean Eduardo Urrestarazu alkatea izandakoa eta hark esan zidan egunen batean Lorenzoren inguruan hitzaldi bat eman beharko nukeela Bakaikun; musikarekin eta abarrekin". Altsasuko abesbatzak proposatutako kontzertu omenaldiarekin eta hitzaldi horren ideiarekin, Ijurra Osane Leitzarekin hitz egin zuen. Leitzak Bakaikuko elizako organoa jotzen du, musika irakaslea da eta koruen munduan esperientzia du, eta erronkari eutsi zion. Omenaldia antolatzen "oso gustura" aritu dela esan du Leitzak. Ijurra: "Lorenzo 70 urtetik beherako gutxi ezagutu dute, eta ondo legoke jendeak ezagutzea, nor zen ezagutzea". Ondoren, Bakaikuko Udalarekin hitz egin zuen eta konpositorearen jaiotetxean plaka bat jartzea erabaki zuen udalak.



Lorenzo Ondarra. UTZITAKOIA

**"ESPAINIAKO SARI NAZIONALAREKIN BERE KONPOSIZIO MAILA IKUS DAITEKE" IGOR IJURRA**

**"ABESBATZAK OMENEZKO KONTZERTUA EGITEA PROPOSATU ZUEN" IGOR IJURRA**

**PERTSONA XUMEA, APALA ETA "ZERBITZU BAT" EMATEN ZUENA ZELA AZALDU DU IGOR IJURRA**

Omenaldi hirukoitza izanen da, beraz, bihar, urriak 28, larunbata, 18:15etik aurrera Bakaikun izanen dena: udaletxetik udalbatza, Erkudengo Ama Abesbatzako kideak eta Sakanako Txistulari Taldea kalejiran Ondarraren jaiotetxera abiatuko dira. Bertan Ondarraren "pare bat" kantu interpretatuko dituzte, eta plakaren estalgabetzea izanen da. Handik elizara abiatuko dira eta elizan Ijurraren hitzaldia izanen da, "jendeak Lorenzo Ondarra nor zen ezagutu dezan; bere bizitzari buruzko aipamenak, formazioak eta abar, 25 minututan, laburki", eta amaitzeko Erkudengo Ama Abesbatzak Ondarraren "dozena bat erdi" obra abestuko ditu, horietako bat txistulariekin.

"Herriak Lorenzo Ondarra ezagutu dezala, eta bere musikaren zatitxo bat entzungo eta ezagutu-

## Omenaldiaren egitaraua

- 18:15** Kalejira udaletxetik bere jaiotetxera, Erkudengo Ama Abesbatzarekin eta Sakanako Txistulari taldearekin.
- 18:30** Plaka estalgabetzea.
- 19:00** Igor Ijurraren hitzaldia, elizan.
- 19:30** Erkudengo Ama Abesbatzaren kontzertua, elizan.

ko du ere". Hori da omenaldiaren garrantzitsuena Ijurrarendako: "Herriak egiten dion aitortpena da". 1990ko hamarkadaren hasieran Ondarra Donostiako komentura eraman zuten, "eta gutxitan itzuli zen Bakaikura, etortzen zenean Etxarri Aranatzen bizi ziren anai-arrebengana joaten zen", horregatik belaunaldi gazteenek ez zuten ezagutuko ere. "Baina ikus dezatela konpositore interesgarri bat izan zela herrian". Konpositorea apaiza, kaputxinoa, zen, "baina bere zorua zapaltzen zuen horietakoa. Bere herriarekin lotutako gizona".

Bakaikuk kultur mailan izan duen ekarpena ezagutaraztea ere garrantzitsua dela gaineratu du musikariak, "Bakaikuk Jose Ramon Anda Espainiako estatuko eskultorerik hoberenetarikoa dauka, eminentzia bat da Anda; Parisen bizi den Asun Goikoetxea margolaria bakaikuarra da, eta Patxi Ondarra kaputxinoa eta Euskaltzaindiako kidea ere izan zen. Herriak ikus dezala eskulturan, margoan, euskalgintzan, musikan... erreferenteak izan dituela". Memoriaz hitz egitean "herriaren memoria" hori ere badela esan du Ijurra.

#### Abesbatzak

Txikitik Ijurra gogoan du musika korala entzutea "nahiko ohiakoa" zela. "Ni oso rockeroa naiz, baina Etxarri Aranzko Abesbatzaren kontzertuak entzutera joaten ginen". Gaur egun, aldiz, "disoziazioa" dagoela uste du musikariak: "Badirudi reggaetona entzuten duenak ezin duela musika korala entzun". Gazteak ere biharko omenaldian parte hartzera gonbidatu ditu.





ASTEKOA

RAF ATXURI

## Txileko egunsenti bortxaz hautsia

Pinochetek eta CIAk estatu kolpea eman zutenetik 50 urte joan dira, "Palacio de la Moneda"ko gertakariak, Allendek bere buruari tiroa eman zioneko milikoez eman ez ziezaioten, Neruda gaixotuaren gorputzari pozoinezko tratamendua eman zitotenekoa, Victor Jararen amaiera martiria, milaka eraildako eta desagerrarazi...

Txilek Latinoamerikar herrialdeetan demokrazia ibilbide luze eta sendoa zeukan, egitura egonkorak, baina, ai ene! Bozketa bidez komunistek irabazi zuten, noiz eta Gerra Hotzaren aldi kritiko samar batean: Vietnam, Afrikako askapen mugimenduak, 68ko ondorenak.

Munduko sheriff-ak ezin zuen bere aginpidea kolokan paratuko zuen botere gehiagorik onartu, are gutxiago gorantza zihoan Hegoamerikan. Bortxaz eta indarkeria zitalez, Pinocheten makilarenpean, aurretik kokortzen hasia zen bestelako alternatiba sozioekonomiko berri bati atea danbatekoz itxi, eta neoliberalismo basati, baina guztiz eraginkor bati ekin zion

## 50 URTEREN BURUAN GERTA DAITEZKEEN TXIKIZIOAK SAIHESTEKO, ZER EGIN DEZAKEGU EGUN?

Txilek, garapen ekonomiko oparo eta ikaragarria edukitzeraino. Oparotasun haren banaketan, ordea, gauzak ez ziren batere txukun gertatu, eta desberdintasun soziala izugarri sakondu eta finkatu zen.

Egun, ezkertiarren gobernu

Pinocheten konstituzioa aldatu ezinean dabil, hango eskuinak milikoen 73ko jarduna temati justifikatzen du eta Txileko jendartearen zati handi batek diktaduraren hainbat egintza ontzat hartzen ditu.

Asteotan Yom Kippur (hura ere 73koa) berri baten aurrean gaude Palestinan, ondoko herrialdeetara heda daitekeena, eta 50 urte iragan direnean, amorrus eta suminez begiratzen diogu orainaldiari jakinda oraingo hainbat triskantzak eta miseriak iragan hurbilean daukatela jatorri garbia. Eta galdera da, 50 urteren buruan gerta daitezkeen txikizioak saihesteko, zer egin dezakegu egun?

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## HARA ZER DIEN

### Mintza gaitzen suizidioaz

#### OLAZTIKO GAZTE ASANBLADA

Maisuenea gaztetxean aurten hasi gara dinamika berri batekin, hilabeteko asteburu ia guztietan ekintza ezberdinak antolatzen. Asanbladetan ekintzetarako ideia ezberdinak jasotzen ditugu eta horietako bat izan zen suizidioari buruzko hitzaldia. Irailerako antolatu nahi genuen, baina Iratxe Etxenikerekin harremanetan jarri ondoren, berak esan zigun hobeki zetorkiola urria, eta hortaz, urriaren 15erako lotu genuen solasaldia.

Iratxe Etxenike Biziraun elkarteak kidea da eta Psikologia ikasketak burutu ditu EHUUn. Berak azaldu zigun pixka bat nolakoa izan behar zen dinamika, baina hala ere guk ezer gutxi genekien egin behar genuenari buruz.

Eguna iritsi zen, eta berarekin jendea: Olaztiko gazte zein helduak, Sakanako

jendea, jende ezezaguna, irakasleak, familiak, eta abar. Orduan, Iratxek hartu zuen lekukoa eta zati teorikoarekin hasi zen, non informazio pila bat azaldu zuen suizidioari buruz, prebentzio aholkuak, datu ofizialak, mito pila bat, gaiari buruzko dokumental eta liburuak... Atal teorikoa bukatuta, Iratxek hitza eman zion publikoari eta orduan hasi zen jendea esperientziak azaltzen, iritziak plazaratzen, gizarte zein instituzioak kritikatzeko... Oro har, jendea hitz egiteko gune seguru batean sentitu zela pentsatzen dugu, eta harritu egiten gaitu jendeak gaztetxea horretarako espazio bezala hartzea.

Aipatzekoa iruditzen zaigu jendeak orokorrean bi gauza azpimarratzen zituela: suizidio egoera baten aurrean zer egin ez jakitea, eta instituzioen arduragabekeria. Bien arteko lotura nabarmena da, gobernuak ez baditu baliabideak ematen suizidioa lantzeko, prebenitzeko, kontzientziatzeko, laguntzeko, informatzeko, eta abar, zaila da edonorentzat horrelako kasu

baten aurrean zer egin jakitea. Beraz, guztiz ulergarria da jendeak gobernu zein instituzioekiko izan zuen jarrera oldarkor zein mindua hitz egiterako orduan.

Behin hitzaldia bukatutzat emanez, zeina ordu batekoa izan behar zuen eta bi ordu eta erdira luzatu zen, Iratxerekin hitz egiteko eta pixka bat hausnartzeko aukera izan genuen Gazte Asanbladako kideok, non ideia batzuk azaldu ziren: horrelako hitzaldi eta dinamika beharrezkoak direla gaur egun; gaztetxera jende pila bat gerturatzeak esan nahi duela behar potente bat dagoela gaia lantzeko, baina zerbitzu publikoetan ez dagoela aukerarik; osasun mentalerako zerbitzu publikoetan dauden baliabideak ez direla nahikoak eta horren aurrean ez dagoela aldaketa zantzurik...


Azkenik, gure eskerrik goxoenak eman nahiko genizkieke Iratxe Etxenike eta bertaratutako guztiei, haiek gabe hau ez litzatekeelako posible izango.



## OBJEKTIBOTIK



### Gazaren mapa Sakanako maparen gainean jarrita (Bakaiku.info)



# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhua Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

#### Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

#### Erredakzioa:

Maidar Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

#### Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

# Autobus zerbitzuarena konpontzeko prest

Irurtzundarrek zerbitzu galera izan dute, makina bat kexa publiko egin eta udalari jakinarazi dizkiote. Udalak egindako galdetegian jasotakoak ere jakinarazi dizkio gobernari. Bileratik "pozik" atera ziren udalekoak, "baina ikusi behar"

## IRURTZUN

Nafarroako Gobernuak Iruñea eta Gasteiz arteko autobus kontzesioa La Burundesa enpresari eman zion. Haren bidez foru administrazioak NBus autobus zerbitzu publiko berria jarri zuen maiatzaren 4an, hauteskunde aurretik. Orditutako izan dira zerbitzuaren inguruko kexak, bereziki Irurtzunen. Hori jakinik Irurtzungo Udalak bere webgunearen bidez herri-tarren kexak jasotzeko galdetegia zabaldu zuen, 50 erantzun baino gehiago jaso zituen. Han jasotakoarekin eta udalak zekienarekin, autobus zerbitzuaren egoera bideratzeko Nafarroako Gobernuari bilera eskatu zion.

Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren zuzendari nagusi Berta Miranda Ordobas eta Lurralde Kohesioa Departamentuko beste teknikari batekin elkartu ziren Irurtzungo udal ordezkariak lastailaren 18an. Unai Razkin Iriarte alkateak azaldu duenez, "governuko ordezkariak onartu zuten Irurtzunen zerbitzuak okerrera egin zuela". Alkateak azaldu duenez, "legez, autobus kontzesio bat eman ondoren, beste enpresek ezin dute geltoki horietan bidaiaririk hartu. Esklusibotasuna ezartzen du. Donostia eta Iruñea arteko kontzesioa ondoren ema-



Irurtzundarrak autobusera igotzen. ARTXIBOA

## "GOBERNUAK ONARTU ZUEN IRURTZUNEN ZERBITZUAK OKERRERA EGIN DUELA"

nen dute. Beraz, linea horretan ari diren autobusek ezin dute bidaiaririk hartu".

### Ondorioak

Udalak aurreko eta egungo autobus ordutegiak konparatu ditu

eta zerbitzuaren okertzea nabarmena da. Astez, Irurtzundik Iruñera joateko hamahiru autobus zeuden lehen, orain hamar. Bueltan etortzeko lehen hamabi zeuden, orain zazpi. Beraz, lehen hainbat konpainiaren artean eramaten zituzten bidaiari kopurua orain bakarrak ezin du eraman.

Alkateak nabarmendu duenez, "Iruñerako linean Irurtzun ibarreko azken geltokia da eta bidaiari asko badaude autobusean, irurtzundarrak autobusa ezin hartu gelditzen dira". Askorendako bu-

ruhauste handia da hori. "Gainera, puntualtasuna ere ez da ona. Horregatik, hainbat irurtzundar ez dira zerbitzuaz fio eta erabaki dute Iruñera joateko garraio publikoa utzi eta auto partikularrean joatea. Bestela, ez direlako garaiz iritsiko medikuarengana, lanera edo dena delakora". Razkinek gaineratu duenez, "badira ordu batzuk zinetan autobus zerbitzurik ez dagoen, eta beharrezkoa den".

### Bileraz

Irurtzungo udal ordezkariak, masifikazioa, puntualtasuna eta ordutegiaren maiztasunaren gaiekin joan ziren bilerara. "Guk esandakoak haiek zituzten autobusen okupazio tasekin bat zetorren. Zeren okupazio tasa oso altua da". Horregatik, gobernua autobusen okupazio handiko ordutegietan errefortzua jartzeko aukera aztertzen ari da. Dauden baliabideekin moldatu beharko luke. "Autobusen puntualtasun faltarena onartu zuten gobernukoek. Hori zuzentzeko eta doitzeko gobernua enpresarekin hizketan" ari dela jakinarazi zien Mirandak.

Bestetik, autobus maiztasuna handitzeko neurriak ere hartuko ditu gobernua. Razkinek jakinarazi duenez, "hasi dira tramitazioa egiten bizpahiru autobusek Irurtzunen geldialdia egiteko". Horietako bat da aste-gunetan Iruñetik 06:00etan ateratzen dena, eta beste bat Gasteiztik 17:00etan ateratzen dena. Larunbat goizean Iruñerako beste zerbitzuren bat jartzea ere aztertuko dute. Razkinek bilaren balorazio "ona" egin du, "egoera hobetzeko prestutasuna azaldu dute. Lankidetzarako borondatea dute, eta 15 edo 20 egun barru bilera egingen dugu berriro. Orduan ikusiko dugu zer aurrerapauso izan diren".


## Foru ogasunak Errozko etxe bat salduko du

Nafarroako Foru Ogasunak Errozko kale Nagusiko 12. zenbakian dagoen etxea, Iñigorena, enkan-te bidez salduko du. Salgai dagoen etxeak biltegi bezala erabiltzen den 92 metro karratuko soto bat, behe solairua eta altuera bat du. Azken horretan 203 metro karratuko etxebizitza dago.

Eraikinaren tasazioa 102.232,83 eurokoa da, eta enkanteko balioa 102.119,13 eurokoa. Etxe horretan interesa duenak bere eskaintza azaroaren 11ko 18:00ak arte egin dezake. Nafarroako Foru Ogasunak ez du gutxieneko eskaintzarik zehaztu. Enkanteari buruzko informazioa nahi duenak *labur.eus/USzao* web orrian eskura dezake.

## Gobernuak turismo bulegoa hartu zuen etxea bota du

Zuntaipe auzoan, errepidearen ertzean, Altsasuko Portazgoa izeneko etxea zegoen. Nafarroako Gobernuaren jabetza zen etxea joan zen astean eraitsi zuten. Eraikinak beheko solairua (biltegia) eta altuera bat zuten (etxebizitza). 95 m<sup>2</sup>-ko planta zuen, gainera, beheko solairuan 25 m<sup>2</sup>-ko portxea zuen. Eraikina egoera txarrean zegoen eta foru administrazioak hura eraistea erabaki zuen. Nafarroako Diputazioak turismoa sustatzeko plangintza ondu zuen 1964an. N-1 errepidearen ertzean zegoen eraikinak turismo bulegoa hartu zuen garai batez. Erabilerarik gabe egon ondoren bititokitizat hartu zuten zenbait urtez.



10:00-12:00  
EGUN ON SAKANA

PRENTSA ETA  
EGURALDIA  
BATETI BESTIA  
EGUNEKO ALBISTEAK  
HIZKETAN  
SAREA: ARALAR ETA  
KARRAPE  
IRRATIEKIN  
AGURRA



IRAGARKI LABURRAK  
**ZOZKETAK**  
ARGAZKI LEHIAKETAK  
ZORION AGURRAK  
DUELA 25 URTE  
**AGENDA**  
IRITZI ARTIKULUAK  
**HIZKETAN**  
KOMUNITATEA  
**ZUZENEKO**  
KONTAKIZUNAK  
GIDA KOMERTZIALA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



# Etorkizuneko Bakaikuz hausnartzeko prozesua

Bakaikuko Estrategia Plana onartu eta bost urtera, zehaztutako bide horretan egindakoa aztertu eta, aldi berean, aurrera begira jartzeko parte hartze prozesua sustatu du Bakaikuko Udalak

## BAKAIKU

Bakaikuarrak herriko 2018-2028 Estrategia Plana egiteko prozesua 2019ko otsailaren 2an despeditu zuten. Hamar urtetarako helburuak eta lan-ildoak zehazten 92 bakaikuar aritu ziren. Prozesu hark Nafarroako Gobernuaren aitortza jaso zuen 2021ean.

Plana egiten duela bost urte hasi ziren eta udal ordezkariak azaldu dutenez, "ordutik, pauso garrantzitsuak eman ditugu herri bezala eta helburu horietako batzuk gauzatzea lortu dugu. Aurretik pentsaezinak zirenak, auzolanaren bidez posible direla frogatu dugu". Baina ez dute horretan gelditu nahi eta bidearen erdian geldialdia egin nahi du udalak, "bost urteetako balantzea egin eta aurrera begira jartzeko". Udal ordezkariak azaldu dutenez, "bost urtetan lortutakoari jarraipena ematea ezinbestekoa dela uste dugu. Hori dela eta, duela bost urte adostutakoa eguneratu nahi dugu, sortu ditugun baldintza berriak probestu eta ekinbideak egokitze".

Horregatik, parte hartze prozesu baten bidez "hamar urte barruko Bakaiku irudikatu nahi dugu. Zer nahi dugu? Zer behar dugu? Zer-nolako herria nahi dugu etorkizunean? Horiek dira denon artean erantzun nahiko



Egoitz Urritza Lazkoz alkatea eta Saioa Zelaia Anso zinegotzia topaketak aurkezten.

genituzkeen galderak", adierazi du udalak. Bi saio antolatu ditu. Batetik, 14 eta 25 urte arteko gazteen topaketa, haien behar eta ekarpen espezifikoak aztertze. Eta, bestetik, herritar guztiei (gazteak barne) irekitako topaketa egin da (hautzaindegi zerbitzua barne).

Udalak herritarren parte hartzeari garrantzia eman dio: "Bilera hauek herritar guztiei irekita daude. Mugarik gabe, behar denaz hitz egin, adostu eta erabakitzea nahi dugu. Bakaikuren etorkizunaz erabaki nahi dugu

eta, horrenbestez, bilerak ahalik eta zabal eta anitzen egin nahi ditugu". Gaineratu duenez, "herrian bizi garenon ikuspegi desberdinak beharrezkoak dira". Parte hartzera gonbidatzearekin batera, udalak jakinarazi duenez, saioak gidatzeaz Emun kooperatiba arduratuko da; "denon iritzia jasotzeko dinamika berri-tzaileak erabili eta eztabaidetan neutraltasuna bermatuko du", gaztigatu du udalak. Aldi berean, jakinarazi du prozesurako Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso duela.

## Sakana Sarietara hautagaitzak aurkez daitezke

Azaroaren 5era arteko epea dago sakanagaratzen.com webgunearen bidez proposamenak egiteko

### SAKANA

Ibarreko komunitatearen ordezkari-tza zabala biltzen duen Sakanako Sozioekonomia Behatokiak (SSB) sustatuta, bueltan dira Sakana Sariak. Laugarren edizioa da aurtengoa. Sariak ibarrean gizarte, ingurumen edo ekonomia eragin positiboa izan duen erakunde edo ekimen kolektiboak aitortzeko balio du, irabazi asmoa izan edo ez.

SSBko kideek azaldu dutenez, "Sakana bizi, elkartu eta anitza zerumuga desiragarri bezala hartuta", hiru balioen gainean lan egiten duten egitasmokolektiboak aitortu nahi ditu. Alde batetik, "dinamismoa, moldagarritasuna eta erresilientzia gaitasuna oraingo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko". Bestetik, "aniztasunaren sustapena, betiere, aberastasun kolektibo gisa ikusita". Eta, azkenik, "elkartasuna eta onura komuna bilatzea komunitatearen beharrak lehenetsiz. Horretarako funtsezko elementuak dira elkarlana, komunitatearen lana (auzolana) eta herri ondasunak (komunala)". Antolatzaileek gaineratu dutenez, "pasatako egoerek erakutsi digute, Sakanan gure gureak ditugun balio horiek inoiz baino beharrezkoago zaizkigu etorkizun partekatatu bat berreraikitze".

### Sari pare

Hautagaitzak aurkezteko epea azaroaren 5era arte zabalik dago. Horretarako, [sakanagaratzen.com](http://sakanagaratzen.com) webgunearan dagoen galdete-

gia bete beharko du interesa duenak. Proposamenak egitekoan, besteak beste, honakoak zehaztea eskatzen da: ekimenaren izena, ekimenaren sustatzailearen izen-abizenak eta kontaktua, ekimenaren azalpena eta proposamena egiteko arrazoia.

Proposatutako ekimen guztien artean bi sari banatuko dira. Hautagai guztiak aztertu ondoren, Sari Nagusia epaimahaiak aukeratu du. Hura ibarreko toki administrazioko 4 kidek, GUAIXE FUNDAZIOKO, Sakanako Enpresen Elkarteko, Bidelagun turismo elkarteko, Belardi ekoizleen elkarteko eta Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteko ordezkari banak osatzen dute.

Sakana aipamen berezia sakanadarrek botoa emanez erabakiko dute. Horretarako, aipatutako webgunearan sartu beharko dute azaroaren 7 eta 20 bitartean. Han hautagaitzen berri emanen da. Botoa ematen duenak hautagaitza guztien artean hiru boto emateko aukera izanen du. Hori da aurtengo sariketako berrikuntzetako bat, joan zen urteko sariketaren balorazioa egitekoan sakanadarrek egindako ekarpena izan da.

Sakana Sariak Lakuntzako kultur etxean banatuko dira azaroaren 23an. Ekitaldia irekia izanen da, baina alde aurretik izena eman behar da. Horretarako, 647 864 239 telefono zenbakira hots egin edo [info@sakanagaratzen.com](mailto:info@sakanagaratzen.com) posta helbidera mezua bidali behar da.



**Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka**

**10 urte bete-bete**

errigora.eus

Saski bakoitzaren balioaren %25 euskaragintzara bideratzen da

**50€**





**Eskatu saskia!**






urriak 20 - azaroak 9





Arbizuko elizan Juan Goikoetxea Zabaloren omenez jarritako plaka. Esquinean, haren argazkia.



Juan Goikoetxea Zabalo. UTZITAKOIA

# Apaiz euskaltzale batek Arbizun euskarari eusten lagundu zuen

Frankismoan apaizek euskararen aldeko egiteak hizkuntza herrietan bizirik mantentzen lagundu zuen. Horren adibide dira Arbizu eta Juan Goikoetxea Zabalo. Bihar 50 urte beteko dira arbizuarrek omendu zutela

## Alfredo Alvaro Igoa ARBIZU

Juan Goikoetxea Zabalo Larraungo Lezaeta herrian jaio zen 1905eko azaroaren 18an. 1933an Arbizura etorri eta 40 urtez apaiz izan ondoren, Donostian hil zen 1973ko garagarriaren 30ean.

## Euskaltzale

Arbizuko apaiza izandakoa 1965ko irailaren 24az geroztik euskaltzain urgazlea zen. Jose Mari Satrustegi Zubeldiak esan zuenez, Goikoetxea euskal nor-

tasunean Nafarroako apaizetatik jatorrenetako bat zen. Euskaltzale kementsutzat zuen, eta haren euskararen aldeko lan sakonaren lekuko Arbizu bera zela adierazi zuen.

Goikoetxeak arbizuar bat gehiago bihurtu zela eta herriko euskararen hitz egiten zuela jakinarazi zuen Joxemari Murua Goñik. Galdera egin zuen: "zer egin ote zuen erretore jakintsu bezain apal ark, euskarak Arbizu'n berari esker, bere artan iraun

zuela denak ao batez esateko; inguruko errietan atzerakada galanta egin zuen bitartean?" Erantzuna ere eman zuen Muruak: "ondo askobait zekien euskerak asetzen duela, bete betean, euskal espirituaren mintzo bearra. Jakite orren eragina izan zuen ardatz nagusi elizgizon eta euskaltzale zen aldetik. Arbizu'ko erria jabe zedin bere nortasunaren altxorraz".

Apaizaren jardun euskaltzalearen testuinguruare ez zuen ahaztu: "garai ura gañera, oso neketsua eta iluna izan zen euskal kulturarentzat. Euskaldun askori bere izkuntzaz ia lotsa arazterainokoa". Muruak gaineratu zuenez, "Don Juan'ek, berriz, erriaren mailla guztietan zekien lan egiten. Eta jakiñik, zein garrantzi aundia duen Jainko bideetan ere ama-izkuntzak, bada, ain gurea dugun euskal mintzo eder au zaindaz tresna izan zuen aldi berean pertsonen barne-muin sakon ori lantzen, eta kristau-sinimena txertatzen. Eta bere jarrera miresgarri artaz Arbizu'ko erria oartu egin zen; eta erderaz ikasi bazuen

ere, eta ondo ikasi! Beti izan zuen leenengo Arbizu'k, eta du, euskara, nafar-izkuntza".

Goikoetxeak Norbert Tauer txekiar euskalariarekin gutun trukea izan zuen 1956an. Arbizun euskararen alde egindakoa horrela laburbildu zuen apaizak: "emen nik egin dutena utsa da, ots, denok egin bear giñukena, euskaraz mintzatu, denakin, au'rakin batez ere, ta Jaungoikoarekin euskaraz mintzatzan erakutsi ta besterik gabe ala jarduten dute, datozen atzeritarrrak berekin jolastekotan behar ko ikasi, bi ilabetetarako lardakatzan asten dira, urterako jator". Eta jarraitu zuen: "nire lantxo ori aipatu bear izatea tamalgarrri zait, beste hainbeste gañerakoak ezdagitelako baita. Zapuzten ta baztartzan dijoakigu dure itzkuntza erri xean arlotetzat jotzen da, naiz jakitun ta letratu batzuk ikasteari eman".

Hil eta urtebetera Benito Ijurrak aitortu zuen Goikoetxeak erakutsi zuela euskaraz "erdaraz bezein ongi ta obeki ta gozoago esan ditezkeela egi ederrenak". Horregatik, "Arbizuko jendear euskera atsegin izan dakio" eta arbizuarrek "euskera gauza aunditatzat irui ta maitatu dute".

## Hileta eta omenaldia

Haren ama Arbizun hil zen eta han lurperatu zuten. "Orduekeroz bertan ill eta bertan obiratzea nai zuan", argitu zuen Felipe Araña Mendinueta.

**"EGUN HERRI GUZTIAK, SALBUESPENIK GABE, EUSKARAZ HITZ EGITEN DU, BERARI ESKER"**

Garilaren leko arratsaldean egin zen Goikoetxearen hileta elizkizuna. "Jende erdia, barruan tokirik etzelako, eleizako atarian egon zan". Jende askok negar egin zuela gaineratu zuen. Herri baten esanak ere nabarmendu zituen: "ze puska galdu du gaur Arbizuk". Arañak jakinarazi zuenez, ehundik gora apaiz joan ziren Arbizura. "Onak esan nai du gure artzai don Juan nor zan. Zein ospetsu. Erriari apaiz tartean maitatua".

1973ko lastailaren 28an, igandearekin arbizuarrek urtetan herriko apaiz izandakoa omendu zuten. Lehenik meza izan zen, omenduaren koadjutore eta roduko apaizenak emana. Sermoian Goikoetxearen apaiz, euskaltzale eta gizon kristau gisakoa nolakoa zen azaldu zuen. Aralarko aingeruaren irudia presente egon zen elizkizunean. Meza bukatzean, elizaren kanpoko aldean Goikoetxearen omenezko plaka ageria utzi zuten. Honakoa irakur liteke: "Goikoetxea Zabalo'tar Juan 1933'tik 1973'ra Arbizu'ko erretora berrogei urtez. Erri ontako kristau-sinismenari Euskararen bidez eutsi zion".

Aurretik, alkateak esan zuenez, "duela 40 urte Don Juan etorri zenean herri guztiak euskaraz hitz egiten zuen. Gaur egun herri guztiak, salbuespenik gabe, euskaraz hitz egiten du, berari esker. Eskertzen dugu, baina gehiago eskertzen dugu zerurako bidea erakutsi izana". Euskararen Sustapenerako Ataleko buru Jesus Ezponda foru diputatuak esan zuenez, "ongi dakizue buru argiko gizona zela, eta biotz onekoa ere. Orregatik askotan etorri naiz gizon aren itzaren, iritziaren bila". Ezpondak gaineratu zuenez, "ez zeuden okerretan, ez gure D. Juan, ez Arbizu erriko gurasoak; beti jakin dute ta beti egin ere, euskaldun jendeak euskaraz itzegein bear duela: etxean, elizan, kalean, leku guztietan". Orduko Diputazioaren asmoen berri ere eman zuen: "euskararen alde, denak indarrez eta garbiki egin dezagula". Txistulariek *Agur jaunak* jotzen zuten bitartean Ezpondak agerian utzi zuen plaka.

Apaiza zenak jaso zuen aitortza bakarra ez zen hura izan. Heriotzaren lehen urteurrenean *Arbizu* izeneko aldizkaria argitaratu zuen arbizuarrek.

**BIKAIN GARAJEA**

Mekanika  
Elektromekanika  
Serie 100  
pintura prototipoa  
Autokarabana eta  
furgoneta saila

948 460 037 Arbizu

**FLORES**

Utzubar industrialdea Arbizu  
948 460 499  
Nafarroako berezko txistorra.





Iturmendiarrak Arrano Beltzan enparantzan. ARTXIBOA

# Hauteskundeak izanen dira azaroaren 26an

Zuhatzuko Kontzejua eta Iturmendiko Udalerako hautagaitzak aurkeztu dira; azken horretan bi zerrenda izanen dira aukeran azaroaren 26an. Zuhatzun, berriz, egungo presidenteak aurkeztu du bere burua

## ZUHATZU / ITURMENDI

Maiatzaren 28ko hauteskundetan Sakanako 14 udal eta 14 kontzeju berritu ziren. Bi toki erakundetarako ez zen hautagaitzarik aurkeztu eta behin behinean jardun dute ordutik toki agintari horiek bai Zuhatzun bai Iturmendin. Toki erakundeen hauteskundeetatik sei hilabetetara falta direnak osatzeko hauteskunde partzialen deialdia egiten da, eta Iruñeko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak jakinarazi duenez, toki erakundeak berritzea falta ziren ibarreko bi herrietan, Zuhatzun eta Iturmendin, hautagaitzak aurkeztu dira.

Zuhatzuk 50 biztanle baino gutxiago duenez, herrian errol-datuta 44 pertsona daude, kontzejuko presidentea aukeratu beharra daukate bakarrik. Aurreko legegintzaldian ardura hori izan duen Juan Pedro Arregi Sarasak, atzera ere, bere burua aurkeztu du karguan segitzeko. Zuhatzuko Independentea hautagaitzarekin egin du.

Iturmendiko Udala berritzeko asmoz, lastailaren 7an batzarra egin zen. Iturmendiarrak osatutako zerrenda osatzeko nahia plazaratu zen batzarrean. Hautagaitzak aurkezteko epeak txikiak ziren. Baina batzarretik egun batzuetara iturmendiarrak batzuk Herri Elkarlana hautagaitzan aurkeztea erabaki zuten. Iturmendin "sorpresa" hartu zuten bi zerrenda aurkeztu zirela jakin zutenean. Izan ere, Escaños en Blanco edo Aulki Txuriak hautagaitza aurkeztu da, bertako inor ez da herrikoa. Hauteskunde kanpaina azaroaren 10ean hasiko da eta azaroaren 24ko gauerdian despedituko da.

Hautagaitzei erreparatuta, genero bakoitzeko alkategai bat dago. Bi zerrendak aztertuta, zazpina emakumezkoak eta gizonzkoak osatzen dute. Hala ere, Herri Elkarlana hautagaitzan gehiago dira emakumezkoak gizonzkoak baino, lau eta hiru. Aulki Txuriak hautagaitzan kontrakoa da.

## Iturmendiko hautagaitzak

### Herri Elkarlana

1. Kai Galartza Cervera
2. Ainhoa Alustiza Galarza
3. Ekaitz Gabirondo Zelaia
4. Aitor De Langarica Alkalde
5. Garbiñe Lopez Aseguinolaza
6. Urko Agirre Gabirondo
7. Mainer Gabirondo Zelaia

### Aulki Txuriak

1. Raul Aperribay Ganzabal
2. Aitor Picabea Lamuedra
3. Elvira Candelaria Garcia Vidales
4. Maria Nieves Uresberueta Iriondo
5. Sara Roteta Uresberueta
6. Manuel Roteta Etxeberria
7. Jose Ramon Jimenez Maganto



Aitor Larraza Carrera eta Ignacio Ugalde Barberia hitzarmena sinatzen. SGA

## Garapen Agentziak ANELEkin elkarlanean segituko du

Sakanan gizarte ekonomiari bultzada emateko asmoz, bi erakundeek hitzarmena berritu dute

## SAKANA

Ignacio Ugalde Barberiak eta Aitor Larraza Carrerak, Nafarroako Gizarte Ekonomien Enpresa Elkartea eta Sakanako Garapen Agentzia ordezkaturik, elkarlan hitzarmena sinatu zuten astelehenean. Agiri sinatu berriak 2017an bi erakundeek abiarazitako elkarlan akordioari segida ematen dio. Larrazak azaldu duenez, "Sakanako Estrategia Plana berritzean, gizarte ekonomia zeharkako elementu estrategiko izendatu zen. Sinatu dugun akordio honen helburu nagusia da konpromiso horri erantzutea eta gizarte ekonomia-aren sustapenean pauso berriak ematea".

Ugalde, bestalde, Sakanan kooperatiba eta lan sozietateek duten presentzia garrantzitsua nabarmendu zuen. "Hori kontuan izanda, gizarte ekonomia-aren sustapenean beraien parte hartzea

bultzatu nahi da akordioaren bidez; besteak beste, ekimen berrien bidelaguntza edo *mentoring* programaren bitartez".

Sinatzaileek, beraz, Sakanan gizarte ekonomiari bultzada eman nahi diote. "Elkarlan ibilbide luzea" dutela azpimarratzeaz aparte, orain arteko ekimen esanguratsu gisa nabarmendu dituzte, besteak beste: Olatukoop eta REAS Nafarroarekin batera Nafarroan berritzailea izan zen KoopFabrika ekintzailetza kooperatiborako programa, 2019koa; Bakaikuarrok herri kooperatiba eta Kalaska kooperatiba sortzeko bidean emandako laguntza.

Elkarlanaren fruituetako bat astelehenean izanen da, *Lidertza Parte hartzaileerako Eraginari buruzko Jardunaldia* hartuko baitu Utzaganek 09:30etik aurrera. Taldea kudeatzeko modua hobetu nahi duten pertsoneni zuzenduta dago.

**PORTUKO**

Altsasu:  
948 563 822 (denda)  
948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz:  
948 460 988



Zelandi eskola publikoa. ARTXIBOA

## Zelandiko ikasleak giza eskubideen aldeko idazle

Gobernuak abian jarri duen 'Ipuina eskuz esku Giza Eskubideak' egitasmoan parte hartuko dute

### ALTSASU

Memoria eta Bizikidetzaz Zuzendaritza Nagusiak bosgarren urtez jarraian *Ipuina eskuz esku Giza Eskubideak* ekimena jarri du abian. Ekimen horretan, 39 ikastetxetako 1.500 ikaslek baino gehiagok parte hartuko dute. Haien artean Zelandi ikastetxe publikoko Lehen Hezkuntzako ikasleak daude.

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela eta (abenduaren 10a), Nafarroako Gobernuak parte hartzaile guztien artean bi ipuin sortzea proposatu die ikastetxeei, Giza Eskubideak gaitzat hartuta.

Bi idazlek hasi dituzte kontaktuzunak. Aurten Peio Lopez-Iturri idazleak euskarazko ipuinaren hasiera idatzi du eta Marisol Artica Zuranok gaztelaniazkoa. Euskarazkoa 21 ikastetxeren artean idatziko dute eta gaztelaniazkoak 18ren artean. Zelandikoek ere ikastetxez ikastetxe dabilen ipuina jasoko dute eta ipuinari paragrafo berri bat edo bi gehitzeaz arduratuko dira. Ipuinek lastailaren 16an hasi zuten beraien ibilbidea eta azaroaren 17an despidituko du. Proiektu kolektibo horren emaitzak liburu forma izanen du.

### DUELA 25 URTE...



## Beste zubi bat Bakaikun

Nafarroako Gobernuak ibai gainean beste zubi bat eraikitzeko lanak hasi zituen lastail akaberan. Aurretik zegoen zubiaren parean, ekialdera, eraiki zuten. Zubi berritik autoak, traktoreak eta kamioiak pasako ziren eta zaharra oinezkoendako geldituko zen. Ordura arteko zubi bakarra 1909an jaso zuten, eta 7.500 pezetako (45,08 euro) aurrekontua izan zuen. XX. mendeko 60ko hamarkadan zubiaren zoruan porlana jarri zuten, gurdiak hobeki ibiltzeko.

# Ziordiarrek 108 urte bete berri ditu

Senideak urtebetetzea dela eta, adindua bizi den Zaragozako egoitzara bisitan joaten zaizkio. Aurten, haiekin batera udaleko hiru ordezkari joan dira. Herriaren izenean opariak eman dizkiote

### ZIORDIA

Carmen Arbizu Cadreitak 108 urte bete zituen lastailaren 23an. Zaragozan bizi da Andre Maria Mesedetakoaren Lagundiko edo Mesedetako moja. Urtebetetzea aitzakia da ilobak (Amparo, Javier, Pablo, Barea eta Pello) bisitan joateko. Oraingoan udala joatera gonbidatu zuten eta Olatz Irizar Martinez alkatea eta Rosa Mendoza Arregi eta Oskar Otsoa Etxeberria zinegotziak joan ziren lastailaren 21ean, larunbatarekin.

Arbizuk lore sorta eta herriko festetako ttattarra jaso zituen opari. Azken horretan, Ziordiko armarrria, omenduaren izena eta 1915-2023 datak ageri ziren. Zapia festetan senideei eman zieten udalekoek, baina larunbatean oparitu zioten. Omendua asko hunkitu zen opariekin eta herriari eskerrak eman zizkion. Arbizuk memoria ederra du eta aukera baliatu zuen hainbat pertsonaz eta etxez galdetzeko. Izan ere, berak egunero bisitatzen du



Carmen Arbizu Cadreita erdian, ziordiarrez inguratuta. ZIORDIKO UDALA

Ziordia: zaintzailearen tabletean google maps zabaldu eta herrian barna ibiltzen da. Arbizurekin eta kongregazioko gainontzeko mojekin bazkaldu zuten ziordiarrek, eta ondoren bueltan etorri ziren.

Omendua 27 urterekin egin zen moja. Corellan nobiziotza egin ondoren, San Feliu de Guixolsen egon zen denboraldi batez, baina bizitzaren zati handiena, 50 urte pasa, Zaragozan eman du.



UHARTE ARAKILGO ESKOLA

## Benitez bigarrenez Uhartan

UharTE Arakilgo udaletxeko erakusketa gelan Ivan Benitez kazetariaren eta argazkilararen *Nieva Ceniza* erakusketa ikusgai dago. Erakusketa munduan barnako 40 gatazketako argazkiz osatuta da. Hilaren 11n erakusketa mustu zenean Benitez bera Uhartan

izan zen eta joan ziren ubertearrei bisita gidatua egin zien. Eskolako Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleen txanda izan zen asteazkenean. Benitezen bidez argazkietan agertzen ziren pertsonen egoerak zein ziren ezagutzeko aukera izan zuten.



# Volvo proiektua hasi da gorpuzten Sunsundeguin

Egindako lanaren emaitzatat aurkeztu zuen enpresak Volvorekin lortutako aliantza. Goi mailako bi modeloez aparte, autobus elektrikoa egiteko elkarlanean ari dira bi enpresak

## ALTSASU

Goi mailako autobusak egiteko Volvoren eta Sunsundeguien arteko akordioa Altsasuko lantegian gauzatu zen asteartean. Dan Pettersonek (Volvo Busesko txasis negozio unitateko presidenteorde seniorra) eta Jose Ignacio Murillok (Sunsundegui-ko zuzendari gerentea) teknologia eta hornidura transferentziaren berri jasotzen duten agiriak trukatu zituzten. Murillok akordioa itxi izana ospatu zuen eta "etorkizunean finkatzeko" balio-ko zuela nabarmendu zuen. Aldi berean, azpimarratu zuenez, "enpresa handi eta txiki bat gara, baina estrategia bera dugu: dakiguna egitea. Haiek karrozeriak egiteari utzi eta txasietan zentratu dira. Guk sekula ez dugu autobus oso bat egiteko nahia izan, karrozaria jartzea baizik".

Murillo gaztigatu zuenez, bi enpresen arteko elkarlana aspaldikoa da. "duela urte batzuk Sideral modelo oinarri zuen Sideral 3.30 modelo garatu genuen, baina ez zuen merkataritza arrakastarik izan". Jakinarazi zuenez, estatutik kanpo Sunsundegui egindako salmentak eta lehiaketetara aurkezteak Volvoren merkataritza sarearen bidez egin dute. "Horrek konfiantza sortu du". Gaineratu zuenez, itxitatiko



Sunsundegui-ko Volvo proiektuko langileetako batzuk buruekin batera.

kontratuaz aparte, elkarlanean segituko dute bi enpresek. Autobus elektrikoa begiz jota dute eta elkarlanean ari dira. 2025ean ekoitzi nahiko lukete eta Sunsundegui Europa hegoaldeko hornitzailea litzateke.

## Mugarriak

Sunsundegui-ko Volvoren hornitzaileen transferentzia abendurako jasoko du. Altsasuko enpresarekin segituko duten edo ordezkioak bilatu behar dituen zehaztu beharko dute. Otsailera-ko ingeniari- eta tresneria

transferentzia jasoko du. Murillok nabarmendu zuenez, etorkizunean egingen diren ingeniari- eta aldatzeko ere barne hartzen dituela akordioak. Aurreikuspenen arabera 2024ko garilean bi modelo ekoizten hasiko dira Sunsundegui eta urte bukaerarako Europa iparraldean eskaintza egingen dute. Horretarako, Murillok Gobernuari laguntza eskatu zion: "lantokia kutsatzen ez duten ibilgailuak karroztatze gune garrantzitsua bihurtzeko".

Aurten Ibarreako lantegitik 328 autobus aterako direla au-

rreikusiko dute, 2028an 783 lirateke. Horrek 46 milioi euroko salmentak 140ra haztea ekarriko luke. Ordurako enpresak 720 langile izanen lituzke. "Hazkunde handia denbora gutxian", laburbildu zuen Murillok. Eta nabarmendu zuen enplegu hazkunde ere enpresa hornitzaileetan ere izanen dela. Azaldu zuenez, azken bost urtetan hornitzaileen %37 nafarrak ziren. "10 milioi euroko balioa duten erosketak dira, aurreikusitako hazkundearekin 40 izanen dira". Plangintza aurrera egiteko Sunsundegui-ko hamabost milioi euroko inbertsioa egingen du. Eta beste hiru langileak trebatzeko. Murillo proiektua arratsua izanen dela ziur dago.

Pettersonek ziurtatu zuenez, "proiektu sendoa da. Estandar gorenak lortuko ditugu eta bezero oso zorrotzak aseko". Nafarroako Gobernuak prozesuan emandako laguntza aitortu zuen, "gakoa izan da". Goi mailako bi modelo merkaturatzeko prozesuaren hasieran daudela azaldu zuen, baita Sunsundegui-ko beste elkarlan batzuetan arrakasta izan dutela ere.

## Gehiago

Enpresa batzordeko (UGT5, LAB eta CCOO hiruna eta ELA 2) presidentea David Trevejo Martinezek azaldu zuenez, gaur egun 405 langile inguru ditu enpresak. Akordioa itxi zenez geroztik ehun bat langile sartu dira. Trevejok azaldu zuenez, lan hitzarmena indarrean da eta ez du uste aldatuko denik. "Enpresa batzordeak ez du halakorik nahi. Errespetatu beharra dago. Hori oinarria da, hortik gorakoak bai, baina baldintzak okertzea ez dugu nahi". Sunsundegui eta Volvok lortutako akordioagatik "pozik" zegoen Trevejo, "albiste

ona. Ongi joanez gero lan baldintzak beharko dira", gaineratu zuen. "Eskerrak ematen dizkiet, batez ere, langileei, gaizki pasa dutelako eta lan baldintzak okertu direlako".

Bestalde, LAB sindikatuak ohar bidez, plantaren modernizazioa eta langileen segurtasuna eta osasuna bermatuko dituzten lan modu berriak eskatu ditu. "Inbertsioak, neurriak eta exekuzio egutegia bilduko dituen plana behar da". Horrekin batera, "langileen lan eta ekonomia baldintzen hobekuntza" exijitu ditu.

Altsasuko alkate Javier Ollo Martinez, berriz, aldean akordioagatik pozik zegoen, "enpresarendako egonkortasuna esan nahi duelako". Sunsundegui-ko enplegu aurreikuspen handiek Lanbide Heziketa institutuan eragina izan beharko luketela eta prestakuntza gune gisa indartu beharko litzatekeela nabarmendu zuen. Bestetik, Altsasuren geografia kokapena nabarmendu zuenez, "oso ona da, abantaila handia da eta baliatu beharra dugu". Ollok uste du lanera kanpotik etortzen diren langileetako batzuk bertan bizitzen geldituko direla. "Horrek etxebizitzan eta osasungintzan eragina izanen du, eta gobernuraren bidez beharko dugu", azaldu zuen. Azkenik, alkateak jakinarazi zuenez, Ibarrea industrialdoko sarbideak eta industria gunea bera hobetzeko plana eta finantzaketa dute heldu den urtean.

**"ENPRESA HANDI ETA TXIKI BAT GARA, BAINA ESTRATEGIA BERA DUGU: DAKIGUNA EGITEA"**

**JARRAI GAITZAZU INSTAGRAMEN !!!**

eta horrela gure produktuak ezagutuko dituzu, nola egiten dugun lan, gure dendak eta salmenta puntuak... Baina hainbat lehiaketetan ere parte hartuko duzu, promozioekin onurak izan, ideia handiak... eta askoz gehiago ere.

@panesamayaogiak

Amaya

OGITEGIA

pana 104 00274



Dan Petterson, Jose Ignacio Murillo eta Mikel Irujo Amezaga hizketan. Atzean trebatzen ari diren bi langile.

# "Ez da Sunsundegui bakarrik. Apika pixka bat gorago ikusi behar dugu"

**MIKEL IRUJO AMEZAGA** INDUSTRIA KONTSEILARIA

Autobus enpresaren erronkei erantzuteko antolatutako prestakuntza ikastaroak bertatik bertara ezagutu zituen asteartean

**Alfredo Alvaro Igoa** ALTSASU

Maria Chivite Navascues lehenakariak, Carmen Maeztu Villafranca Gizarte Eskubide, Gizarte Ekonomia eta Enplegu-kontseilariak eta Irujok berak Nafar Lansarek langabetuak Sunsundeguirako trebatzeko prestatutako ikastaro bat bertatik bertara ezagutu zuten. Izan ere, 450 lanpostu sortu behar ditu eta langile premia horren aurrean, enpresak eskatuta, Nafar Lansarek eta Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusiak soldadura, elektrizitate, pintura eta muntaiari buruzko 15 prestakuntza-ikastaro jarri zituzten abian, 220 plaza guztira. 40 eta 60 ordu teoriko eta praktikoko ikastaroak dira. Prestatutako ikasleen ia %60 kontratatzea aurreikusten du enpresak.

Agorrilaren akaberatik gaur arte zazpi ikastaro egin dira:

soldadurako bi, 22 pertsona trebatuta; elektrizitateko bi, 18 parte-hartzaile; eta pinturako hiru, 32 ikasle. Egiteko daude muntatzeko sei ikastaro eta elektrizitate eta pinturako bana. Prestakuntza Sakana Lanbide Heziketa institutuan, Burlatako Iturrondo zentroan eta enpresan bertan ematen da. Irailaz geroztik dagoeneko trebatutako 31 langile berri ditu enpresak: 23 gizonezko eta 8 emakumezko. Haietako hamahiru elektrizitate-ikastaroetan aritutakoak dira, hamar soldaduran eta zortzi pinturan.

**"SUNSUNDEGUI ERRESILIENTZIA HITZAREN ADIBIDE DA, OSO ONA BESTE ENPRESENDAKO"**

**Sunsundeguin ia etxean bezala?**

Beno, bai. Gainera horrelako berriak aurkezteagatik pozik. Pozik Sunsundegui zer-nolako urteak pasa dituen ikusi eta gero, baita zer-nolako elkarlana lortu dugun ikusita ere. Dakizuen bezala Gobernutik, Sodenatik, urteak egon gara laguntzen. Baina bi aldeko lan bat izan da. Erresilientzia hitza oso famatua egin da pandemiaren ondoren. Nik uste dut Sunsundegui dela erresilientzia hitzaren adibide bat eta, gainera, oso adibide ona beste enpresendako.

**Ezkutuko lan bat. Orain fruituak ikusten ari zarete.**

Noski. Urte hasieran etorri zitzaigun enpresa esateko halako planak zeudela. Eta, jakina, elkarlan bat izan behar zen. Orduan lanean hasi ginen. Volvo Nafarroara bisitan etorri zen, beraiekin egon ginen. Suedian, Gote-

borgen egon nintzen han bertan Gobernu bezala gure konpromisoa zuzenean azaltzeko. Behar zen puntu bat zen hori. Alboan egon gara, egon behar ginen tokian, baina lanaren muina enpresak egin du.

**Maiatzean esan zenuenez, enpresak hiru arlotan ditu premiak eta lantalde bana sortu duzue. Premiatiko bat prestakuntza arlokoa da. Zertan da?**

Enplegua asko bizkortu behar da. Trebakuntza hori nola eman aztertu zen. Hor hainbat ekintza bideratu ditugu. Bi ildo daude: Enplegu Departamentua, Nafar Lansare, eta Hezkuntza Departamentua, Lanbide Heziketa. Joan zen urtean Altsasuko institutuan ematen den prestakuntza indartu zen. Hortik hainbat eta hainbat ikasle ateratzen ari dira. Horri egonkortasuna eman-gio dio, baita sistemari ere.

**Higiezinak, edo lantokia. Zein premia daude?**

Horretarako Nasuvinsa sozietate publikoa daukagu, ikusteko zer-nolako beharrak izan behar dituen enpresak. Gero ikusi behar dugu baita ere behar horiek hemen bertan ere islatu ahal diren, edo nola egin ahal den. Enpresaren beharren inguruan aztertu beharko den zerbait da. **Inguruan krisiak utzitako lantegi hutsak daude. Edo industrialde berri bat izan daiteke?**

Logistika bezala, hemen alboan izango balitz, askoz hobeto. Baina prozesu hau hainbat fasetan egingo da. Pitteka-pitteka gero eta autobus gehiago ekoiztuko dira, geroz, karrozeria gehiago. Orduan ikusiko ditugun beharrak, baita nola moldatzen den lana hemen barruan ere.

**Hirugarren erronka edo premia finantzarik dira.**

Hori da. 2011n hasi zen krisia zela-eta Sodenak lehenengo operazio garrantzitsua egin zuen. 2011tik 2020ra arte kasik 39 milioi euro konprometitu ziren aurrera ateratzeko. Esan beharra dago hori itzulita dagoela. Ez ziren izan laguntzak, baizik eta maileguak eta abalak. Sodenari esker beste finantza entitateekin negoziaketak erra-

**"BIHURTU AHAL DUGU NAFARROA AUTOKAR EDO KARROZERIAREN INGURUKO ELEMENTU ESTRATEGIKOA"**

zagoak izan ziren. Hamarkada luzean enpresak gorabeherak izan ditu. 2018 eta 2019 oso urte onak izan ziren. Gero pandemia etorri zen, gauza pixka bat makurtu zen. Atzean egon ginen, beraiekin lanean, eta lortu genuen Cofidesen mailegu hori (8,9 milioi euro). Horrek enpresari pandemia ondoren aurrera egiteko berme bat eman zion. Eta orain aztertu behar dugu, orain enpresaren beharrak desberdinak dira. Jada ez gara ari zer behar duen bizirik egoteko, baizik eta nolako inbertsioak behar dituen geroari buruz hitz egiteko. Hori da elementurik garrantzitsuenak: orain geroari buruz hitz egin behar dugu.

**Orain arte bezala foru administratiboa aldamenen izango du?**

Noski. Horrelako hainbat ekitaldirekin oso argi uzten dugu zer nolako garrantzia ematen diogun Sunsundegui. Ez bakarrik enpresa bezala, baizik eta sektore bezala. Bihurtu ahal dugu Nafarroa autokar edo karrozeriaren inguruko elementu estrategikoa. Beraz, hau ez da bakarrik Sunsundegui. Apika pixka bat gorago ikusi behar dugu.

**Ekosistema bat?**

Bai, zergatik ez. Automozioan badaukagu. Zeren hau automozio munduan sartzen da. Ekosistema esaten dugunean da unibertsitatea, da prestakuntza, Lanbide Heziketa ere bai. Baina, noski, teknologia zentroak dira, eta, nola ez, industria. Eta ez da bakarrik Sunsundegui egingo duena. Dena ondo, eta plana jarraitzen badu, urtero Sunsundegui 50 milioi baino gehiago inbertituko zituela Nafarroako beste hornitzaileetan. Hori da behar duguna: prestakuntza, teknologia eta industria ehuna. Hori da ekosistema bat.

**Gainera, gertuko hornitzaileak.**

Bai, gainera, hori. Hemen bertan jaioko litzateke ekosistema. Hori da orain ikusi behar duguna, ez bakarrik Sunsundegui operazioa bezala, baizik eta proiektu edo sektore bezala nola sendotu ahal dugu Nafarroan.

**Volvo proiektuko aurreneko autobusa hemendik ateratzeko zain?**

Jakina. Eman dituzte epeak eta adi egongo gara lehenengo autobus hori ondo ikusteko. Eta suposatzen dut Volvorekin batera zerbait egingen dugula autobus horri publizitatea emateko.





Ziordiko elkartearen postre tailerlean parte hartu zuten helduek eta haurrek. UTZITAKOA

# Euskaraldiaren segida den ariketa egiten

Guraso eta zaintzaileen, hau da, helduen euskararen erabileran eragiteko eta umeekeko hizkuntza eredugarritasuna bulkatzeko ekimena da 'Haurren aurrean, helduak heldu'. Igandera arte izanen da indarrean. Rolak berrartzera gonbidatu dute

## SAKANA

Irurtzun eta Ziordiko euskaltzaleek eta ibarreko eskolek eta ikastolek bat egin dute *Haurren aurrean, helduak heldu* ekimenearekin. Pasa den ostiralean hasi eta igandean despedituko da. Hamar egun horietan umeekekin harreman zuzena duten helduak aktibatuzko jarduerak egingen dira bi herrietan eta aipatutako ikastetxeetan. Esaterako, Irurtzunen, Aizpea euskara taldeak antolatuta, haur eta helduendako jolasak izan ziren joan zen ostiralean. Ziordiko euskaltzaleek, berriz, postre tailerra antolatu zuten Erreka-kartearen elkartearen egun berean. Bestalde, bi herrietan, eskola

eta ikastoletan ekimenaren zabalakundeak egiten eta baliabideak ematen ari dira.

Ekimen horren sustatzailea Euskaltzaleen Topagunea da, eta *Euskarak 365 egun* ildoaren barruan kokatu du. Antolatzaileek azaldu dutenez, "0 eta 12 urte arteko umeekekin harreman zuzena duten eta hizkuntza transmisioan eta eredugarritasunean eragina duten helduei zuzenduta dago ariketa. Hau da, gurasoei eta zaintzaileei, izan senideak edo herritarrek". Gaineratu dutenez, "helduen arteko hizkuntza praktiketan eragitea da helburua, euskararen erabilera areagotzeko", umeeke ikus dezaten gurasoek eta herritarrek ere euskara era-

biltzen dutela. Euskararen erabileran non begiratu, ispilu bat, izan dezaten. Horretarako, hainbat motako ariketak proposatu dira ekimenak irauten duen bitartean, esaterako: helduen hizkuntza ohiturak umeekekin eraginaz jabetzeko, helduak hizkuntzari dagokionez eredu-garri izateko, inguruko gurasoen beharrak ezagutzeko, motibatuta dauden gurasoei laguntzeko, gurasoak sentsibilizatzeko eta ahalduentzako, guraso euskaltzaleak saretzeko...

## Segida

Dinamikaren bigarren edizioa da aurtengoa. Euskaraldiko edizio batetik besterako tartean

antolatzen da. Euskaraldian herritarrek emandako pausoei eusteko, pauso progresiboak ematen jarraitzeko eta herritar gehiago aktibatuzko horretarako da ekimena. Bestela esanda, Euskaraldian proposatzen den ariketa praktikoa egiten jarraitzean datza *Haurren aurrean, helduak heldu* ekimena. Euskaraldian gurasoak ere aktibatzen dira euren artean ahobizi eta belarriprest rolak hartuta. Baina jakitun dira "Euskaraldiak bere mugak dituela". Harekin alderatuta, egun hauetan gartzen ari den dinamikak "helduen arteko hizkuntza portaerak umeengan duten eraginari sarkotasun gehiagorekin erreparatzen dio". Argitu dutenez, egun hauetako ekimena "Euskaraldiarekin osagarria da, ariketa sozialean baliatu ezin ditugun aukerak baliatu nahi ditugularik". Beraz, rolak hartu eta gurasoek elkarrekin, eta umeei, euskaraz hizketatzera.

Euskaltzaleen Topagunetik azaldu dutenez, "Gurasoek haurrei 'egin euskaraz!' agintzen diete, helduek euren artean erdaraz egiten duten bitartean. Euskal Herriko edozein txokotako irudia da. Haurrek euskaraz egin dezaten nahi badugu, zergatik ez dugu helduok hala egiten?". Gaineratu dutenez, "hizkuntza bat ikastea ez da gramatika kontu soila. Hizkuntza bat ikasterakoan hainbat arau sozial eta hizkuntza praktika ere jasotzen ditugu, eta, horregatik da hain garrantzitsua helduok zer jokabide daukagun euskararekiko, haurrek ere hizkuntzarekin batera jokabide horiek barneratuko dituztelako. Alegia, euskarazko esakerak dioenez, zer ikusi, hura ikasi", azpimarratu dute.

# FESTAK

## LAKUNTZA

### HERRITIK TIRA FESTAK

#### URRIAK 27 Ostirala

18:00 Herritik tira: hasiera, Zarata txaranga, Lakuntzako erraldoi eta buruhandien konpartsa, udaletxean.

19:00 Ilunabarra dantza ikuskizuna, plazan.

20:00 Auzatea, plazan.

20:00-23:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, plazan.

20:30 Zezensuzkoa.

22:30 Kontzertuak: Ostikoka, Bulkada eta Hilketala taldeak, Biltokian.

Biltokik antolatuta.

#### URRIAK 28 Larunbata

11:30 Mintzapraktika, plazan eta udaletxean.

13:00 Playback txapelketa, plazan.

14:30 Herritik tira:

Belaunaldi arteko sokatira txapelketa.

20:00 Auzatea eta Buruhandiak, plazan.

20:30 Zezensuzkoa.

21:00 Kontzertuak: Cliford, Muga Zero eta La Excavadora, plazan.

#### URRIAK 29 Igandea

12:00 Etxarri Aranazko

Abesbatzaren kontzertua, elizan.

13:30 Auzatea.

18:00 *Futbolariak eta printzesak* antzezlanaren emanaldia, kultur etxean.

19:30 Buruhandiak.

20:00 Zezensuzkoa.



**Nafarroako**  
Bertsolari Txapelketa  
2023

**Finalaurrekoa**  
**ALTSASU**  
Azaroak 4, larunbata  
17:30ean, Iortia Kulturgunean

Sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian salgai



Sarai Robles Vitas, Ekhiñe Zapiain Arlegi,  
Saioa Alkaiza Guallar, Saats Karasatorre Martinez,  
Eneko Fernandez Maritzalar eta Patxi Castillo Graciarena

Gai-jartzailea: Zigor Gartzia Arregi 'Zian'

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI  
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO  
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /  
kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 27

## LAKUNTZA Ikastaroa.

Hipopresibo ikastaroa: zoru pelbikoa eta sabelaren giharra indartzeko ariketa abdominal hipopresiboak; arnasa-apnearen bitartez lantzen den teknika. Adin guztietarako emakumeendako gomendagarria, bereziki kirolariendako, umetokia eta maskuria eroria dutenendako, erditu berri denendako eta pixa galera dituztenendako. Sakanako Mankomunitateak eta Nafarroako Kirolaren Institutuak antolatuta.  
17:30etik 19:30era, kultur etxean.

## ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate aholkularitza zerbitzua.  
17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunean.

## ETXARRI ARANATZ Kontzertuak.

Grade2, Nafarroa 1512 eta Neallta Fola taldeen kontzertua.  
21:00etan, gaztetxean.

## ETXARRI ARANATZ Bertso afaria.

Bertso afaye: Iker Zubeldia eta Julio Soto bertsolariekin. Txartelak: Xapatero eta Leku Ona.  
21:00etan, Karrikestu elkartearen.

## LARUNBATA 28

## IRURTZUN Azoka.

Bigarren eskuko Piku azoka, Pikuxarrek antolatuta.  
10:00etatik aurrera, Pikuxar plazan.

## ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota pala elkartearen Nafarroako Eskola Jokoen partidak: Mendiburu – Marroyo / Garraño – Sanz; Bakeriza – Sasiain / Moreno – Aldasoro; Campos – Amado / Imaz – Galarza; Ormazabal – Erauskin / Larraza – Lazkoz; Aldaz – Baztarrika / Lohiarte – Murugarren / Goikoetxea – Zubiria / Urbe – Jimenez.  
10:00etan, frontoian.

## ARRUAZU Jardunaldia.

Tomas Ganboa Ezkil Errepika Erakustaldia, Nafarroako Ezkizainak elkarteak antolatuta.  
10:30-12:00 Ezkilategi eramangarria kalean: errepika eta iraulketa.  
11:00 Azken errepika proiektzioa (erdarazko azpitoluekin) eta Ezkila joleen egitekoa gaur egun hizketaldi laburra, elizan.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO NAGUSIAN

Gran Hotel Nazareno Txuspo Poyoren filmaren emanaldia, XII. Arte Azokaren barruan  
Ostirala 27: 19:30

Jeanne du Berry gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

Igandea 29: 19:30  
Astelehena 30: 19:30

Chinas gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Osteguna 2: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO TXIKIAN

Cerrar los ojos zineforum filmaren emanaldia  
Igandea 29: 19:00

El legado zineforum filmaren emanaldia  
Osteguna 2: 19:00

12:00 Gazta eta ardoa, plazan.

12:30 Aitor Satrustegiren Agur errepika.

Ondoren, errepika erakusketaldia.

13:30 Tomas Ganboari omenaldia.

14:30 Herri bazkaria.

## IRURTZUN Batzarra.

Itaiak azaroaren 30erako deitu duen mobilizazioaren inguruko batzar informatiboa.

12:00etan, kultur etxean.

## ITURMENDI Jaialdia.

Iturrock eguna, Aitzkozar elkarteak, IGAK eta Eztanda Irratiak, Iturmendiko Udalaren laguntzarekin antolatuta.

12:00 Taloak, plazan.

13:00 Poteoa eta pintxoak.

15:00 Herri bazkaria.

16:00-20:00 Puzgarriak.

20:00 Irati-58 taldearen kontzertua.

22:00 Bokatada.

23:30 RIP, Eskorbuto eta Tijuana in Blue.

02:30 DJ Tximeneas.

## ALTSASU Batzarra.

Itaiak azaroaren 30erako deitu duen mobilizazioaren inguruko asanblada irekia.  
12:00etan, Gure Etxea eraikinean.

## ALTSASU Gazte agenda.

Gau beltzarako apainketa.  
17:00etatik 22:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.



IRURTZUN Nire barnekaldiak Koldo Arnanz Zufiaurre artista altsasuarraren margolanen erakusketa.  
Urriaren 31ra arte. Pikuxar tabernan.

IRURTZUN, ETXARRI ARANATZ ETA ALTSASU Emozio ongizate irudietan argazki lehiaketaren irudien erakusketa, Ziordiko, Olaztiko eta Altsasuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek antolatuta. Urriaren amaiera arte. Osasun etxetan eta gizarte zerbitzuetako egoitzetan.



UHARTE ARAKIL Niewa Geniza Hazturaren kontrako kronikak Ivan Benitez argazkilariaren argazki erakusketa.  
Urriaren 29ra arte. Udaletxe plazan.

LAKUNTZA Ane Zubeldia Morras marrazkigilearen erakusketa. Sorginak tabernan.



ALTSASU XII. Arte Azoka erakusketa, Artebide elkarteak antolatuta. Urriaren 20tik azaroaren 20ra. Astelehenetik ostiralera 17:00etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna hasi baino ordu bat lehenago, igandetan 18:30etik 19:30era. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

## ALTSASU Gau beltza.

Ipuin kontalaria eta gau beltzan girotutako eskulanak 3 eta 8 urte bitarteko haurrendako. Kukuereka elkarteak antolatuta.  
18:00etan, Kukuerekan.

## BAKAIKU Omenaldia.

Lorenzo Ondarrari omenaldia.  
18:15etik aurrera, udaletxetik.

## OLAZTI Antzerkia.

De improviso teatro konpainiaren De improviso show ikuskizuna.

19:00etan, kultur etxean.

## ALTSASU Kontzertua.

Sakanako Haize Berriak Bandaren Konpositore handien musika kontzertua: Jacob de Haan, Bert Appermont, Robert Smith...  
19:30ean, Iortia kultur gunean.

## IGANDEA 29

ALTSASU Bizikleta irteera.

## Bazkide zozketa

## URRIKO SARIDUNAK

## 1. SARIA

Cristina Betelu Lizarraga (Lakuntza)


## 2. eta 3. SARIAK

Jose Ignacio Gainza Perez (Hiriberri Arakil)  
M. Aranzazu Uncilla Araña (Arbizu)



Er<sup>v</sup>iti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioeserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen



Mendi bizikleta irteera antolatuta dute Barranka txirindulari taldeak eta Sakanako Mankomunitateak: Pradejon – Sartaguda – San Adrian, Ebro ibaiaren ibilbidetik. **07:00etan, autobus geltokian.**

#### ARBIZU Tailerra.

Gau beltza: kalabaza huste tailerra (bakoitzak bere kalabaza eraman behar du). Ondoren, txokolatada, plazan. **17:00etan, ludotekan.**

#### ALTSASU Antzerkia.

Zirika Zirkus konpainiaren *Aurkitu gabeko altxorra* antzerki eta zirku ikuskizuna. **17:00etan, lortia kultur gunean.**

#### OLAZTI Txotxongilo ikuskizuna.

El Cau del'unicorn konpainiaren *El fantasma mentiroso* txotxongilo ikuskizuna. **17:00etan, kultur etxean.**

## ASTELEHENA 30

#### ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanakako pentsiodunen

mugimenduaren pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.

**12:00etan, udaletxearen aurrean.**

## ASTEARTEA 31

#### LAKUNTZA Joskintza tailerra.

Sormenezko jospasadak tailerra antolatuta du Sakanako Mankomunitateak, joskintza tailerren barruan. **17:00etan, Sakanako Mankomunitateko egoitzan.**

#### IRURTZUN Gau beltza.

Misterioz eta mitologiak beteriko Ibilaldi beltza: Iskidi, Tramankulu, Ion Barbarin, Yurena Perez, Izaskun Mujika eta Lorena Arangoarekin, Pikuxarrek antolatuta. **17:30etik aurrera, Ardanzetako xendan.**

#### UHARTE ARAKIL Pilota.

Nafarroako XXXVII. Kirol Jokoak gazteen lau eta erdi Guillermo Mazo Memoriala: Ciriza / Mues; Armendariz / Figueroa; Zabala / Setuain; Garcia / Santesteban. **18:00ean, frontoian.**

#### ALTSASU Gazte agenda.

Gau beltza: arratsalde beldurgarria. **18:00etatik 21:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.**

#### ARBIZU Gau beltza.

18:30 Ipuin kontalaria, liburutegian. 19:00 Kalejira, bertako herri mozorroekin. 20:00 Aatea, plazan.

#### ALTSASU Gau beltza.

Trapu zaharrez jantzita ateratzera gonbidatu dituzte haurrak. Herrian barna lauzpabost tokitan geldialdiak, Iñigo Aritza ikastolan antolatuta. Ikastolan landutako kuiekin aterako dira haurrak. **18:30ean, Foru plazatik.**

## OSTEGUNA 2

#### ITURMENDI Hitzaldia.

Palestinako egoera Askapenako kideekin aztergai. **19:00etan, Aitzkozar elkarte.**

#### ESKELA



## Carlos Gauna Aristu

Beti gogoan izango zaitugu

Olaztiko Ehiztari Elkarte

### ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo [eskolak@guaixe.eus](mailto:eskolak@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

## IRAGARKI SAILKATUAK

#### IRAKASKUNTZA

##### KLASEAK EMAN

**LH ikasleendako klase partikularrak:** Aktiboan nagoen irakasle bat naiz eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Interesa baduzu deitu edo idatzidazu. 655 448 901.

#### LANA/NEGOZIOAK

##### ALOKAGAI

**Altsasun "Coworking" bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat:** Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatze bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta *office*-a ditugu. Aukera paregabea!

Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

#### LAN ESKAINTZA

**Arakilgo Udalak dinamizatzaile kultural lanpostua aldi baterako betetzeko deialdia zabaldu du:** Hautagaien zerrenda osatu nahi dute, lanaldi erdian, B mailako soldatarekin. Derrigorrezkoa C1 maila, gidabaimena eta autoa izatea. Informazio gehiago [www.arakil.eus](http://www.arakil.eus) web orrian.

#### IKASTAROK

**Mank-en Hondakin zerbitzuak antolatutako joskintza tailerrak:** Sormenezko josi-pasadak

urriaren 31n 17:00etatik 19:30era, josteko makina egokitu edota erabiltzen ikasi azaroaren 7an 17:00etatik 19:30era, estanzazioa familian (hau bikoteka egingo da) azaroaren 14an 16:30tik 18:30era. Tailer guztiak Mank-en Lakuntzako egoitzan egingo dira. Tailerrak Erabili enpresarekin elkarlanean prestatu dira. Izena emateko [info.hondakin@sakana-mank.eus](mailto:info.hondakin@sakana-mank.eus) helbidera idatzi edo 674 144 114 telefonora whatsapp mezua bidali lehenbailehen plazak 12 lagunetara mugatuak direlako. Animatu eta parte hartu.

#### OPARITUTAKOAK

**Katua oparitzen da:** Bi hilabete inguru ditu eta bakarrak jaten du. Txiki-txoa da. Telefonoa 659 921 424.

#### OHARRAK

**Uharte Arakilgo Udalak Auzaletako hilerria zabaldu duela jakinarazi du:** Azaroaren 5era arte zabalik egonen da, hila biak apaindu edo bisitak egin ahal izateko.

**Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan:** Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun

Zerbitzutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu whatsapp mezua bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

**Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak:** Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulu jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro

emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian.

**Patata operazioa:** Azaroaren 5ean, igandearekin, Iruñeako Alegria peñak patata operazioa egingo duela jakinarazi du. Urdiainetik hasi eta Satrustegi bitartean, herri herri, jakiak biltzen egonen dira igande goizean eta eguerdian. Animatu.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

## JAIOTZAK

- **Izadi Guridi Resano**, urriaren 18an Dorraon
- **Oinatz Gorriti Borreguero**, urriaren 18an Uharte Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## EZKONTZAK

- **Mikel Dorronsoro Ginea eta Nora Burgi Villanueva**, urriaren 21ean Irurtzun

## HERIOTZAK

- **Javier Bengoetxea Lezea**, urriaren 22an Altsasun
- **Mikel Sagarzazu Andueza**, urriaren 25ean Lakuntzan

## Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

#### BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6  
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 • [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

# IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## “Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📱 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

## FUTBOL PREFERENTEA

**6. JARDUNALDIKO EMAITZAK**  
Altsasu - Beti Onak B 3-2

**SAILKAPENA**  
PREFERENTEKO 1. MULTZOA  
1 Valle de Egües B 14  
2 Altsasu 14

**HURRENGO JARDUNALDIA**  
URRIAK 28, LARUNBATA  
16:30 Infanzones - Altsasu (Gazolaz, Obanos)

## Altsasu, lidergoaren bila

Altsasu bigarren da, eta Infanzonesen kontra bide onean segi nahi du.



## EMAKUME PREFERENTEA

**5. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Berriozar - Altsasu 3-0

**SAILKAPENA**  
EMAKUMEEN PREFERENTE MAILA  
1 Tudelano 13  
9 Altsasu 0

**HURRENGO JARDUNALDIA**  
URRIAK 28, LARUNBATA  
17:45 Gares - Altsasu (Osabidea)

## Altsasu, egoerari buelta ematera

Azken partidak ahaztuta, Garesen kontra lan ona egin nahi du Altsasuk.

## FUTBOL ERREGIONALA

**4. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Asdefor - Etxarri Aranatz 2-5  
Lagunak B - Lagun Artea 3-2

**SAILKAPENA**  
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA  
1 Mutilbera C 12  
3 Etxarri Aranatz 7  
5 Lagun Artea 6

**URRIAK 29, IGANDEA**  
16:15 Etxarri A. - Baztan B (San Donato)  
17:00 Lagun Artea - Zizur (Zelai Berni)

## Etxarrik Baztan hartuko du

Azken garaipenari esker sailkapenean hirugarren dago Etxarri Aranatz, eta Baztanen kontra lan ona egin nahi du, postuari eusteko.

## Lagun Artea, Zizurren kontra

Lagunaken kontrako porrot mingarria – denboraz kanpo sartu zioten gola – ahaztu nahi du Lagun Artea.

# Ezkurdia edo Jaka, Bermeok du giltza

**PILOTA** Lau eta Erdiko finalerdietara bietako nor pasatuko den dute jokoan Joseba Ezkurdiak eta Erik Jakak larunbatean Bermeon. Ikusmina handia da, bi pilotariak konfiantza alde dute eta hil ala biziko partida espero da

## Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Lau eta Erdiko Pilota Txapelketan final laurdenetako hirugarren eta azken jardunaldia jokatu da asteburuan. A multzoan Peio Etxeberriak finalerdietarako txartela lortu du, aurreko ostiralean sorpresa eman eta Deportivon Joseba Ezkurdia faboritari 19 eta 22 irabazi eta gero. Salaberriak min hartuta segitzen duenez, bertan behera geratu da goizuetarraren eta Etxeberriaren arteko partida. Beraz, Joseba Ezkurdiak eta Erik Jakak larunbatean Bermeon jokatu duten partidatik aterako da A multzoko finalerdietako beste bikotea.

Ezkurdiak eta Jakak asteartean hautatu zuten materiala. "Nik hautatu ditudan pilotak azkarragoak dira, jokoari erritmo gehiago sartzeko. Erikenak, aldiz, lasaiagoak dira, motelagoak" azaldu zuen Ezkurdiak. Arbizuarrek gaineratu zuen "soilik behin" jokatu duela orain arte Bermeoko Artza pilotalekuan, "distantzia



Erik Jaka eta Joseba Ezkurdiak, material aukeraketan. ASPE

honetarako partida baterako egokia dirudi".

## Deportivokoa, ahaztuta

Etxeberriaren kontra ez zuela ongi jokatu argi du arbizuarrek. "Hemen ez dago damutzeko tar-

terik, galdu izanaren disgustua ahaztua dut. Bilboko Deportivo partida zaila zen, ez nuen nire lana ongi egin, eta Peio Etxeberria ni baino hobea izan zen. Partida hasieratik zalantzekin jokatu nuen, ez nintzen frontoian ongi

kokatzen eta ez nintzen eroso aritu".

Orain Erik Jakaren kontra duen partida erabakigarrian zentratuta dago. "Fisikoki ongi nago, eta entrenamenduetako sentazioak onak dira. Deportivon ere, nahiz eta galdu, fisikoki ongi bukatu nuen. Bermeorako gogotsu nago".

## Jaka, konfiantzarekin

Erik Jakak lehen jardunaldian Peio Etxeberriaren kontra 22 eta 9 galdu zuen. Salaberriaren kontra Altsasun jokatu beharreko partida bertan behera gelditu zenez, araudiari jarraiki 22 eta 0 partida irabazitzat eman zitzaion. "Geldialdi hau ez da ez ona ez txarra izan. Aste hau entrenatzeko aprobetxatu dut. Bermeon zerotik hasiko gara biak, eta nik uste dut partida irekia izango dela, %50ean" azaldu zuen material aukeraketan.

Katedrarendako Joseba Ezkurdiak, egungo kaiolako txapelduna, da faborito, are gehiago finalerdia sailkatzea jokoan dagoenean, baina edozer gerta daitekeela ezin da ukatu. Ezkurdiak eta Jakak Lau eta Erdian jokatu izan dituzten norgehiagoka gehiengoa arbizuarra gailendu da, baina ez da ahaztu behar 2020ko finalerdian Jakak 22 eta 16 irabazi ziola Ezkurdiari. "Altunarekin batera, azken urteetan distantzia motzeko onena da Ezkurdiak. Irabazi badut, zergatik oraingo honetan ez?".

## Derbi nafarra prestatzen

**ARETO FUTBOLA** Osasuna Magna Xotak eta Ribera Navarrak larunbatean 19:30ean Tuteran jokatu duten derbiak zapore berezia du lurutzungo taldearendako, berdeak sailkapenean hirugarren baitira, liga hasiera ikusgarria eginda. "Taldea mentalki topera dago, konfiantza osoz. Ea horrela jarraitzen dugun" azaldu du Miguel Hernandez entrenatzaileak.



## ATLETISMOA Asier Estarriaga eta Mikel Astiz, aurre-aurrean

Lasterketa ugari jokatzeko ari dira egunotan. Esaterako, igandean 19.490 korrikalarik parte hartu zuten 32. Valentziako Maratoi Erdian (21 km). Kibiwot Kandie keniatarra gailendu zen (57:40), eta nabarmentzekoa da Asier Estarriaga etxarriarra ikusgarri ibili zela, 176. sailkatu baitzen (1:10:40).

Egun berean VII. Zubiri-Iruñea maratoi erdi arrakastatsua jokatu zuen. 617 atletek lortu zuten proba bukatzea, Xabier Macias (1:08:49) eta Henar Etxeberria (1:24:09) buru zirela. Mikel Astiz ihabardarra seigarren iritsi zen helmugara (1:13:12). Emakumezkoetan, lehen sakandarra Elena Guzman izan zen (1:50:46).





Sakanako Aizkora Eskolan trebatzen ari diren gaztetxoak, lanean.



21 urtez azpiko Sakana Sokatira taldea.



Iñigo Aritza eta Andra Mari taldeak, proba konbinatueterako prest.

# Herri kirol eskolen fruitu ederra

**HERRI KIROLAK** Altsasuko lortia plazak hartu zuen Sakanako Mankomunitateak antolatutako 2023ko Sakanako Herri Kirol Eguna, ferietan. Ekimenak ikusmina piztu zuen eta jende asko hurbildu zen parte hartu zuten 70 herri kirolariak txalotzera

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak urteak daramatza herri kirolak sustatzen. Helburu horrekin antolatu zituen Sakanako Aizkora eskola eta Sakanako Harri jasotze eskola, aurki hogeitau urte beteko dituztenak eta arrakasta itzela dutenak. Eskoletan eta, eskoletatik aparte Sakanako herri kirolariak egiten duten lana erakusteko, urtero Sakanako Herri Kirol Eguna antolatzen du Mank-ek. Aurten urriaren 21ean izan zen, Altsasun. Feriak izanda, jende asko bildu zen 70 herri kirolari inguruk eskaini zuten erakustaldiaz gozatzen. Ekitaldia hasi baino lehen herri kirolari guztiek batera ateratzen duten argazkia, aurten, ohi baino jendetsuagoa izan zen, herri kirolek duten sustenguaren isla. Herri kirol harrobia, beraz, egon badago.

Hasteko eta behin, Iñigo Aritza eta Andra Mari ikastolen arteko herri kirol proba konbinatuen erakustaldia izan zen. Koxkolak, txingak, korrika, zakua... parte hartu zuten neska-mutikoei dena eman zuten oso lehiatua izan zen proban.

Aizkolarari nagusiak, enberrari epai bertikala egiten hasi zuten saioa. Juanjo Erdozia-Jon Erdozia eta Iban Resano-Iker Gorriti bikote sakandarrek, eta Lezaungo Juanjo Lopezek eta Jaizko Angel Erasok osatutako bikoa izan ziren lehiatu zirenak. Sakanako Aizkora Eskolan trebatzen

**"SAKANAKO HERRI KIROL EGUN EDERRA IZAN DA. JENDE ASKO ETORRI DA"**  
AMAIA GERRIKAGOITIA

diren aizkolarari gazteek hartu zieten txanda: Aritz Oiarbidek, Eñaut Oiarbidek eta Amets Aristizabalek.

Bitartean, Andra Mariko tiratzaileak gerrikoa ongi lotuta prest ziren, Arza epaileak txistua jo eta lehendabiziko sokatira tiraldiak egiten hasteko. 21 urtez azpiko taldeko Maia Novoselsky, Maddi Beltza, Oinatz Zelaia, Ailetz Arretxe, Izaro Ducar, Julen Jauregi eta Amaiur Martinez de Ordoñana lehiatu ziren, bi taldetan banatuta.

**Aizkolarari gazte kuadrilla polita** Sokatirako lehen erakustaldia bukatuta, Sakanako Aizkora Eskolan trebatzen diren aizkolarari txikiak txanda izan zen. Ibai Galarza, Eneas Aristizabal, Asier Galarza, Urko Oiarbide eta Ekai Erdozia aritu ziren lanean, Sakanako Aizkora Eskolako Jua-

nito eta Juanjo Erdozia monitorean eta eskolako bestelako aizkolarien begiradapean. Gogotsu aritu ziren.

Segidan sokatiraren txanda izan zen. Andra Mariko 21 urtez azpiko talde bat Andra Mariko kadeteen taldearen kontra aritu zen. Lexuri Lazkozek, Auritz Beltzak, Luna Lopezek eta June Ormazabalek osatzen zuten kadeteen taldea, eta 21 urtez azpikoen kontra ez ziren kikildu.

Aizkolarari nagusien azken erakustaldiarekin despeditu zen saioa. "Jende asko etorri da ikustera eta ekitaldi polita izan da. Aizkolarari ugari ditugu Sakanan, soka tiratzaileak, herri kirol proba konbinatuetan aritzen direnak... herri kirolak bizirik daude Sakanan. Pena da gaur Sakanako Harri Jasotze Eskolako kideek ezin izan dutela parte hartu, bestelako konpromisoak zitu zutelako. Baina oso pozik gaude, eskolan bederatzi harri jasotzaile trebatzen direlako, horietako bi, emakumeak" azaldu zuen Amaia Gerrikagoitia Mank-eko kirol teknikariak.

**Eskolen arrakasta nabarmena** Mank-ek sustatutako Sakanako Aizkora eta Harri Jasotze eskola 2004 urtean jarri ziren martxan,

aizkorian eta harri jasotzean trebatu nahi zuten neska-mutiko eta gazteei baliabideak emateko. Hasieratik erantzun bikaina izan zuten.

Aizkora Eskola Axio Floresek abiatu zuen, ondoren nazabaldarrekin hartu zuten erreleboa, eta, azken urteetan, erdoziatarrek dute ardura. Aizkolarari gazteak trebatzen "oso gustura" aritzen direla nabarmendu zuen Juanito Erdoziak. Aurten hamabost trebatzen ari dira, tartean neska bat. "Lehen kanpoko jendea hartzen genuen, baina orain sakanadarrekin dagoen tokia betetzen da. Neska-mutikoei ilusio handia dute eta gustura etortzen dira. Euskal Herrian aizkora eskola bakarra dago, gurea, eta hori oso garrantzitsua da". Ikasturte berria marsu-apiribila aldean hasiko da martxan.

Harri jasotze eskola Mikel Lasarteren ardura da. Oso pozik dago Lasarte, aurten bederatzi ikasle dituelako, orain arteko kopururik handiena, eta lehenengoz bi emakume direlako. Giro ederra dute Irurtzunen eskaintzen diren klaseetan, eta ateak "zabal-zabalik" daudela nabarmendu du. Interesatuek, Mank-eko Kirol Zerbitzura jo dezakete.



# Iskizako jubenilak, Nafarroako txapeldunak

**GIMNASIA ERRITMIKOA** Iskiza Sakana oinarrizko jubenil taldeak Nafarroako Bigarren Mailako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa irabazi du, eta azaroaren 23tik 26ra Iruñeko Nafarroa Arenan jokatu den Espainiako Txapelketarako txartela lortu du

## Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Urriaren 21ean Nafarroako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu zen Mendillorin, lehen eta bigarren mailan. Azken honetan Iskiza Sakana oinarrizko jubenil taldeak hartu zuen parte. Olaia Agirrek entrenatzen dituen neskek ezin hobeki aritu ziren, txapeldunak izan baitziren, merezimendu guztiz. "Iskizako jubenilek orain arte egindako lana bikain defendatu zuten: ikusgarri aritu ziren. Egia esan, ez genuen txapelketa irabaztea espero; bagenekien posible zela, baina ez zen gure helburua" azaldu du Agirrek. Iskiza Sakana txapeldunaren atzetik, Larraona eta Anaitasuna taldeak sailkatu ziren.

## Zintak eta pilotak

Araudiari jarraiki, erabili zizuten aparatuek bi zinta eta hiru pilota izan ziren. Olaia Agirrerren esanetara Ane Iturrioz, Eider Goikoetxea, Irune Etxaniz,



Olaia Agirrek entrenatzen duen boskotea, txapelketarako prest. ISKIZA SAKANA

Nagore Erdozia eta Naroa Diaz gimnastak aritu ziren.

Nafarroako Txapelketa jokatu baino lehen, Donostiako Izar Leku eta Gernikako Xixili torneoetan parte hartu zuen talde sakandarrak. Donostian hama bi talderen artean laugarren sailkatu ziren, eta, Gernikan, hamazazpi talderen artean seigarren. "Torneo hauek oso garrantzitsuak izan ziren Nafarroako Txapelketa behar bezala prestatzeko. Donostiako eta Gernikako bi torneoetan akatsak egin genituen, eta gure helburua akatsetatik ikasi eta egindakoarekin pozik geratzea zen. Nafarroako Txapelketa ongi egin nahi genuen; ariketa akatsik gabe egitea zen gure helburua, entrenamenduetan egiten duguna txapelketan erakustea. Eta lortu genuen!" nabarmendu du Olaia Agirrek. Horregatik guztiatik "oso pozik gaude".

## Espainiakoa, Nafarroa Arenan

Nafarroako Txapelketa irabazteaz gain, azaroaren 23tik 26ra Iruñeko Nafarroa Arenan jokatu den Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketarako txartela lortu zuten. Nafarroa Arenan aurkeztuko duten koreografia eta dantza Nafarroako Txapelketako berbera izango da. Horregatik, ordura bitartean Nafarroako Txapelketan aurkeztutako ariketa "fintzen" jarraituko dute, "Espainiako Txapelketara momentu onenean iristeko".

## Maider Betelu Ganboa IRAÑETA

Irañetan motor hotsa entzunez gero, gertu ibiliko da Markos Beraza Vitoria. 12 urterekin parte hartu zuen lehenengoz lasterketa batean, anaien pausoak jarraituz, eta berehala hasi zen nabarmentzen, Nafarroako, Euskadiko eta Zona Norteko moto-kros, cross country eta enduro ia txapelketa guztiak irabaziz. Bigarren urtez jarraian Espainiako Senior B mailako Enduro Txapelketa irabazi du, merezimendu osoz.

**2022an lehenengoz irabazi zuten Espainiako Enduro Txapelketa Senior B mailan, zenbait urtez bigarren postuetan ibili eta gero. Kosta zen, baina behin irabazita eta presioa kenduta, aurtengo bigarren urtez jarraian garaipena iritsi da. Topera zabilta.**

Topera baino, beti bezala. Aurtengo joan zen urtean baino errazagoa egin zait txapelketa irabaztea, arerio nagusia, bigarrena zen Jesus Duarte almeriarra udan lesionatu zelako. Horregatik azken lasterketetan nolabait esateko "lasaiago" aritu naiz.

**Espainiako Enduro Txapelketak aurtengo bost proba zituen. Otsailaren 17an hasi zen, Santiagon (Galizia), eta urriaren 15ean despeditu zen, La Torre D'oristan (Katalunia).**

Tartean hiru lasterketa jokatu ziren: marsuaren 17tik 19ra Oliankoa (Lleida), maiatzaren 5etik 7ra Lalingoa (Pontevedra), eta irailaren 15etik 17ra A Estradako (Pontevedra). Gure mailan, Senior B 4T mailan, hamabost motor gidari inguruk parte hartu genuen.

**Txapelketa primeran hasi zuten, lehen lasterketa, Santiagon, irabazi baitzuten.**

Bai, lehenengo egunetik irabaztera atera nintzen, argi eta garbi. Eta ongi atera da, bost probak irabazi ditudalako. Hasierako hiru lasterketetan lehia polita izan nuen Duarterekin, baina gero txapelketa ez zen horren estua izan. Hala ere, txapelketan beti adi-adi egon beharra dago. **Enduroak proba luzeak dira, erresistentzia handikoak.**

Enduroa moto-krosaren eta cross countryaren arteko nahasketa antzeko bat da. Basoan 50-60 kilometroko zirkuitu bat prestatzen da, eta zirkuitu horren hiru toki ezberdinetan kronometratutako guneak daude, hiru gune. Sei-zazpi ordu irauten du enduro lasterketak. Kronometratutako gune bakoitza 10 mi-



ASIER ALONSO

## Podiumetik jaitsi gabe

**AUTOMOBILISMOA** Urriaren 14an V. Esteribarko Rallysprinta jokatu zen. Sakana Motorsporteko Iker Askargorta pilotua eta Iñigo Galarza kopilotua (Opel Astra) hamabosgarren sailkatu ziren, euren mailan bigarren. Nafarroako Asfaltoko Rally Txapelketan hirugarren jarraitzen dute, eta larunbatean, Villa de Codesen, postuari eutsi nahi diote.



UTZITAKOA

## 60 metroak amets

**DISKO JAURTIKETA** 2024ko aurrendenboraldian murgilduta dago June Kintana bakaikuarra. Uztailaren 5ean bere marka pertsonala gainditu zuen, Bartzelonan (58,08 m), eta aurtengo helburua 60 m-ra gerturatzea da, ekaineko Europako Txapelketetara sailkatu ahal izateko. Pariseko Olinpiar Jokoak "amets ia eskurazina" dira berarendako. Baina, nork daki?





Espainiako Enduro Txapelketak zituen bost lasterketak irabazi ditu Markos Berazak, Senior B mailan. UTZITAKOA



Markos Beraza, KTM motor gainean. UTZITAKOA

# "Berriz txapeldun, poz handia; baina lehen garaipena bereziena da"

**MARKOS BERAZA VITORIA MOTOR GIDARIA**

**MOTORRA** Markos Beraza Vitoria irintarrak Espainiako Senior B mailako Enduro Txapelketa irabazi du bigarren urtez jarraian

nutu ingurukoa da. Gune horietan topera aritu beharra dago, eta puntu batetik bestera joateko loturretan, ordea, azkar bai, baina topera ez.

**Izugarri nekatuko zarete.**

Asko. Sei-zazpi ordutan uneoro adi-adi egon beharra duzu, zure onena ematen. Gorputza eta burua, biak nekatzen dira. Jakina, maila onean aritzeko, entrenatu beharra dago. Horregatik, ni normalean uda ondoren sasoi hobean egoten naiz, udan entrenatzeko denbora gehiago dudu-

lako. Azkeneko probetan, berez, hobeki aritzen naiz.

**Kisuskilea izanik, ez duzu entrenatzeko tarte handirik izango.**

Ez. Neguan bakarrik larunbategan eta igandeetan entrenatzen dut. Askotan kanpora ateratzen

**"JESUS DUARTE ARERIO NAGUSIA LESIONATU ZENEZ, ERRAZAGOA EGIN ZAIT IRABAZTEA"**

naiz, lehorrean entrenatzeko. Udan, eguna luzeago delako, entrenatzeko tarte gehiago dut. **Denboraldi bakoitzeko motor bat erabiltzen duzu. Zer moduz ibili da lau eta erdiko KTM motor berria?**

Oso ongi. 2008 urtetik denboraldi hasieran motorra aldatzea gustatzen zait. KTM motorren zalea naiz; izugarri gustuko ditut, eta, gainera, fidagarritasun handiena duten motorrak dira. Aurten zorteko naiz, ez baitut matxurarik izan. Ildo honetan ere, oso ongi joan da denboraldia.

Mekanika kontuetan Santandereko Zona Paddock dendakoek laguntzen didate, baina aurten ez diet lan gehiegirik eman.

**Espainiako Enduro txapelduna zara, bigarren urtez jarraian. Poz handia izango duzu.**

Bai, irabazteak beti poz handia dakar, baina lehendabiziko garaipena, joan zen urtekoa, bereziagoa izan zen. Lehenengo garaipena izan zen, eta, bestalde, bigarrenarekin, Duarterekin, denboraldi guztian barna borrokan egon nintzen. Beste xarma bat zuen, saltsa gehiago.

**Duarteren faltan, aurten gehiago estutuko zintuen norbaiten falta izan duzu?**

Azken txanpan borroka gehiago egotea faltan bota dut, txapelketa ikusgarriagoa izateko. Erosoago ibili naiz azken bi lasterketetan. Ez naiz lasai ibili, hemen ezin baita inoiz erlaxatu, baina ez naiz horren presionatuta sentitu. Beste modu batera ibili naiz.

**Garaipena ospatu al duzu?**

Etxean, familiarekin, pixka bat ospatu dugu, baina aurten ez dugu, joan zen urtean bezala, lagunartean ospatu. Dena den, garaiz gaude, zerbait egingo dugu. Azken lasterketara, A Estradara, Ruben anaiarekin joan nintzen, bera izan nuen laguntzaile. Elkarrekin ospatu genuen. **Txapelketa bukatu berri, dagoeneko hurrengo denboraldiko motorra begiratua izango duzu.**

**"ENDUROAK IRAUTEN DUEN SEI-ZAZPI ORDUTAN UNEORO ADI-ADI EGON BEHARRA DUZU"**

Bai (kar-kar). Egun dudan KTM-aren modelo berria hartuko dut. 2024ko bertako eta inguruko lasterketetan parte hartuko dut, baina oraindik ez dut Espainiako Enduro Txapelketan parte hartuko dudana guztiz erabaki. Litekeena da, baina egutegia eskuetan izan arte ez dut erabakiko. Bestelako proiektu batzuk ere aztertzen ari naiz.

**27 urte dituzu, oraindik kirol honetan maila gorenean aritzeko tarte baduzu.**

Bai, eta motorrari lotuta jarraituko dut, hori oso argi dut, baina Espainiako Txapelketako egutegia zein den ikusi nahi dut. Aurten bost probak etxetik bost ordura jokatu ziren, baina entzuna dut agian datorren urtean lasterketa bat Huelvan jokatu dela, eta beste bat Almerian. Bertara zortzi ordu pasa ditugu, eta dudan lana eta bestelakoak kontuan hartuta, gehiegixko da, baita alde ekonomikotik ere. Horregatik, egutegia eskuan izan, eta guztia ongi aztertu arte ez dut erabakia hartuko. Ikusiko dugu.

**Team Beraza taldean ilobak eta beste haur batzuk motorrean trebatzen ibili zara. Zer moduz ibili dira txikiak?**

Batzuek utzi dute, beste batzuek jarraitzen dute... Denetik, baina jarraitzen dutenak oso gustura dabilta. Ongi ibili dira, baina gehiago entrenatu behar dugula nabaritzen da. Bestalde, irailaren 29 zen Irañetako Enduro Txapelketa zen jokatzeko, baina Ingurumen Departamentuko baimen kontu batzuegatik ezin izan genuen egin, bertan behera geratu zen. Ea hurrengo urtean zer gertatzen den.





Larunbatean Zabalarate Eguna ospatu zuten Lakuntzako mendizaleek, eta berreskuratu dituzten ganbelak bisitatu zituzten. ZABALARTE



Artazil ganbela, eraberrituta, garbi-garbia eta alboan zurezko seinalea duela. ZABALARTE

# Zabalarate Egunean, ganbeletan egindako lana ikusteko ibilbide polita

**MENDIA** Aralarko Lakuntzako zazpi ganbelak eraberritzeko egitasmoan buru-belarri dago Zabalarate mendi taldea. Larunbatean, Zabalarate Egunean, ganbelen ibilbidea egin zuten, falta ziren seinaleak jarri, egin dena ikusi, eta falta dena zerrendatzeko

**Maidar Betelu Ganboa** LAKUNTZA Lakuntzako Zabalarate mendi klubak urtero zenbait mendi irteera egiten ditu, ekainean Lakuntza-Aralar mendi lasterketa antolatzen du, eta Zabalarate Eguna ospatzen du: mendi irteera bereziren bat, eta, nola ez, bazkari ederra. Pandemia garaian ohiko irteerak bertan behera geratu zirenez, Aralarko Lakuntzako ganbelak identifikatu eta berreskuratzeko ideia bururatu zitzaizen Zabalaratekoiei, kide batzuen interesa aintzat hartuz. Larunbatean, Zabalarate Egunean, ganbelak ikusteko ibilbide ederra egin zuten eta gustura ospatu zuten egindako lana.

**Herriko altxorak berreskuratu** Ganbelak edo askak iturriko ura jasotzen duten egiturak dira, gehienetan kutxa itxurakoak,

abereek, animaliek eta pertsonen ura edateko aukera izan dezaten. Lakuntzan, herrian eta mendian ganbela dezente daude. Aralarko Lakuntzako dermioan dauden antzinako ganbeletan oinarritu dira Zabalaratekoak. Klubeko Iñaki Arkauzek ganbela batzuen berri bazuen, eta, horretaz gain, gaztetan artzain izandako Felix Arregirengana (91 urte) jo zuten informazio eske. Guztien artean Aralarko Lakuntzako dermioan zazpi ganbela identifikatu zituzten: Etxatxeta, Sardano, Artazil, Harganbela, Arzubita, Saldizazpiko ganbela eta Labako Sare.

**ZAZPI GANBELETAN GARINEK TAILATUTAKO EGURREZKO SEINALEAK JARRI DITUZTE**

Ganbelak eraberritzea erabaki zuten, "ganbelak Lakuntzako historiaren parte direlako. Pena da altxor hori galtzea" azaldu du Ainara Lopetegik.

## Denetarik lanak

Ganbela batzuk egoera hobean zeuden, eta besteak kaxkarra goan, baina guztiek ere garbiketa eta konponketa lana behar zuten. "Garai batean zuten funtzioa galtzen joan direnez, aspaldian ez ziren konpondu eta hausten eta lehortzen joan ziren". Lantaldea martxan jarri, eta, gutxika, ganbelak konpontzen hasi ziren. Zabalaratekoiei herritar boluntarioak gehitu zitzaizkien. Whatsaap edo Facebook bidez egindako abisuekin jartzen zuten hitzordua, eta ahal zuena joaten zen. "Dozena bat herritar inguru aritu izan gara, bakoitzak ahal zuenean".

## Egurrezko seinaleak

Ganbela bakoitzak bere beharrak zituenez, eraberritze lan ezberdinak egin dituzte. "Ganbelara iristeko bidea eta ganbela inguruak garbitu, ganbela bera hustu eta garbitu, lurpeko urak ganbelara bideratu, pitzadurak zementuz itxi, hodiak ongi jarri... denetarik" gaineratu du Ainara Lopetegik. Bide batez, Lakuntzako Udalarari eskerrak eman nahi dizkiote, "falta zitzaigun erreminta eta materiala udalak jarri baitu".

Lehenik eta behin Etxatxeta, Sardano eta Artazil eraberritu zituzten; ondoren, Saldizazpiko ganbela. Arzubita, Labeko Sare eta Harganbela dira eraberritzeko falta direnak; aurki egingo dira egin beharrekoak. "Harganbela ganbela naturala denez, pixka bat txukundu eta garbitzearekin nahikoa izango da, baina Arzubitak eta Labeko Sarek lan gehiago dute, Arzubitak bereziki. Hura konpontzeko zementua igo beharko dugu, eta mendian nahiko goian dagoenez, nola egin erabaki beharko dugu".

Ganbela guztietan Jose Ramon Garinek tailatutako egurrezko seinaleak jarri dituzte, bakoitzaren izenarekin, ganbelak behar bezala identifikatzeko.

## Ganbelen ibilbidea

Zabalarate Egunean, larunbatean, ganbelak ikusteko ibilbide po-

**HARGANBELA, LABEKO SARE ETA ARZUBITA ERABERRITZEA FALTA DA. ZORTZIGARREN GANBELA EGON LITEKE**

lita prestatu zuten. Artazilekoa izan ezik, "ez zelako eskura geratzen, nahiko urruti", gainontzeko sei ganbeletatik pasatu ziren, eta zurezko azkeneko seinaleak jarri zituzten Harganbela, Labako Saren eta Arzubitan. "Egun polita pasa genuen. Lasai joenez lau ordu inguruko ibilbidea, 11 edo 12 km inguruko egin genuen Aralarko ganbeletatik barna. Buelta polita da" gaineratu du Zabalarateko Julian Martiarenak. Ondoren, Lakuntzako Pertza Elkartean bapo bazkaldu, eta poteo polita egin zuten. "Bikain pasatu genuen".

Ganbeletara joateko ibilbidea markatu edo ez, oraindik ez dute erabakia hartu. Hori izan zen larunbateko Zabalaratekoen hizketagaietako bat. "Gu ez gara mendia markatzearen oso zaleak, mendian inpakturik ez sortzeko. Agian ibilbidearen track bat egin daiteke eta publiko egin, baina ibilbidea markatu... ez gara oso aldekoak" zioen Martiarenak. Gaia, bada, erabakitzeko da.

## Zortzigarrena?

Aralarko Lakuntzako dermioan berritutako zazpi ganbela horiek zortzi izan daitezke, Ernesto Floresek beste ganbela baten berri eman baitie. "Ganbela naturala omen da, eta ez dakigu izena. Laban dago, Sansaastin baselizatik gora dagoen eremu zabal horretan, Paatton. Beraz, orain lana badugu. Berriro ere artzainekin bildu, eurek ganbela honi buruzko berririk ba ote zuten galdetu, zein izena duen, eta, gero, jakina, garbitu eta zurezko seinalea jarri" dio Ainara Lopetegik.



**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Helena Santano artista altsasuarrrak aurten Arte Azokaren antolakuntza pixka bat "urrunetik" bizi izan du, Laredora bizitzera joan delako, baina egitasmoa hasieretatik ezagutzen du Artebide artisten elkarteko eta erakusketaren sortzailetako bat izan baitzen duela hamabi urte. Urriaren 20an herrira itzuli zen XII. Arte Azokaren mustutze ekitaldian parte hartzeko; erakusketa azaroaren 20ra arte ikusgai egonen da, Iortia kultur guneko erakusketa aretoan. Santanok koadro batekin parte hartu du.

#### Zer da Artebide?

Artebiden Sakanako artistak daude. Gehienbat emakumez osatutako talde bat da, artea eta kultura mugitzen dutenak. Baina egia da une honetan pixka bat desaktibatuta dagoela. Alde batetik, bakoitzak gure lanak ditugulako eta hemendik hona gabiltzalako eta, bestetik, instituzioetatik laguntzarik jasotzen ez dugulako. Urtero esaten dugu: aurten bai, aurten gehiago elkartuko gara eta gauza gehiago egingo ditugu. Data iristen da eta derrigorrez elkartzen gara azoka antolatzeke. Gogo handiak ditugu. Denbora beharko dugu. Azkenean, bizitzak dispersatzen zaitu, fokalizatu beharrean. Agian jubilatzen garenean Artebideko ekimen asko ateratzen hasiko dira.

#### Zer izan zen lehenago Artebide edo Arte Azoka?

Aldi berean sortu ziren, paraleloan. Artista talde bat elkartu ginen eta Manolak esan zuen: "zergatik ez dugu feria baliatzen Arte Azoka egiteko?" Orduan hasi ginen pentsatzen nola egin, nola jarri... eta taldea sortu genuen.

#### Zer egin behar da Artebiden sartzeko?

Gogo eta ilusioa izatea. Talde lanean egiteko ahalmena izatea ere; guztiei falta zaiguna.

#### XII. Arte Azoka mustu duzue, nola gogoratzen duzu lehenengoa?

Ilusioa eta lan handiarekin aterazen. Deskontrol pixka bat egon zen ere gauza asko egin behar zirelako. Gauza batzuk airean gelditu ziren, baina indar gehiago zegoela iruditzen zait ere. Lehenengo sei urtetan indar eta ilusio gehiago zegoen. Arte Azokara arte gidalero gehiago zuen jendea etortzen zen; arte zirkuituan ospetsua zen jendea etortzen zen. Agian hausnarketa eta ana-

# "Arte Azoka bakarra da; horrelakorik ez dago inon"

**HELENA SANTANO** ARTISTA

Arte Azokaren sortzailetako bat izan zen altsasuarra; aurten, bizitzaren gauzengatik, "urrunetik" bizi izan du prozesua. Erakusketan koadro bat du



Helena Santano artista altsasuarra Arte Azokako bere koadroaren aurrean.

**"NIK BETI ESATEN DUT: ARTEA IKUSI ETA BEGIRATU, ULERTZEARENA BERANDUAGO DATOR"**

lisa egin beharko genuke. Gurretako oso duina da, baina kanpora begira duin egiteko. Gehiago mugitu beharko genuke. Tanjerren egon ginen, eta orain Laredon nagoela erakusketa areto izugarri bat dago eta ber-

tara eramaten saiatzen ari naiz. Ez gelditzeko bakarrik Sakanan. Egia esan, bertan nagoenez, orain pixka bat urrutitik bizitzen ari naiz guztia, baina sareak egiten saiatzen ari naiz. Niretako garrantzitsua da ere. Sare sozialelan egon beharko genuke ere, bestela oso tokikoa gelditzen da.

#### Arte Azokara etorri zara.

Bai, jakina. Ez dut utzi, baina ez nago bertan hariak mugitzen; orain arte egon naizen bezala saltseatzen.

#### Zenbat artistak parte hartzen duzue?

Beti 30 bat artistak parte hartzen dugu. Batzuetan gehiago izan dira ere. Artista gonbidatuak etortzen dira ere, eta aurten Kataluniatik Sagri Mauleonen lagun batzuk etorri dira. Mustutzean poesia irakurketa egin zuten, eta haien lanak erakusketan daude. Sareak eginak ditugu.

#### Oso errotuta dago, ezta?

Bai, eta hoberena da herritik eta herriarendako egiten dugula dela. Herritik mugitu gabe arteaz hitz egiten dugu. Jendea ez da galeria batera joan behar, baina hemen zinemara joaten dela edo lagun batek erakusten duela... Aretoa bisitatzen da. Egun batean artelanak azaltzen ibilbidetxoa egiten dugu ere, eta bertan ezagutza pedagogikoa ematen dugu: zer den, zertarako, zer gertatzen ari den... Jendeak ulertzen badu, etorriko da. Xedea heztea da ere. Ikustea eta begiratzea, ulertzea denborarekin doa. Ikustea ez

dela zerbait arrotza. Edozein motatako liburu bat irakurtzen den bezala, koadro bat begiratu. Ez da ezer berezirik behar; sentitu behar da: kolorea, lerroa, espresioa... Zergatik deitzen dizu batek atentzioa eta beste batek ez?

#### Herrietan ere artea egiten delako.

Herrikoa duin egitea. Ez gaude isolatuta. Dena ikusten eta jasotzen dugu. Artea deszentralizatzeke aukera ematen dugu, eta herriari bizitza ematen diogu. Hemen gauza asko gertatzen dira. Badirudi herrian egina dagoenez kategoria gutxiago duela, eta ez da horrela. Hemen espresio eta sentimendu berdinarekin sortzen da, galeria bateko artista bat bezala.

#### Zer baldintza bete behar dira Arte Azokan parte hartzeko?

Dena artea da eta dena ez da artea. Hau nire kriterio pertsonala da: nire ustez garapen artistiko bat izan behar dute. Parte hartu nahi duenak heldutasun artistikoa izan behar du. Inoiz ez ditugu salbuespenik jarri. Curriculum eta argazkiak eskatzen ditugu, eta normalean ez dugu inor atzera botatzen. Baina nire ustez gutxienez garapen bat izan behar dute.

#### Zergatik da berezia?

Ez dagoelako inon gehiago, bakarra da. Oso berezia da, eta ez gaituzte laguntzen. Sakanako instituzioei, udalei, zinegotzietei eta abarrei deialdia luzatzen diet: etortzeko eta ikus dezaten. Artea ez da ondasun ekonomiko bat, baina gozatzeko ondare bat da, kulturala, bizi dugun garaiaren isla... Kontestu asko ditu arteak. Horrelako beste feria bat ARCO da, Madrilen; eta Arte Azoka. Iortian asko laguntzen gaituzte, baina kanpoko laguntza behar dugu ere. Ganadu azoka bat garrantzitsua den bezala, arte azoka batek ere garrantzia dauka. Diziiplina asko erakusten dira; Sakanako artistei eta gonbidatuei ahotsa ematen diegu.

#### Zer erakutsi duzu?

Iruñeko aire libreko lehiaketan egin nuen koadro bat. Ia hirugarren sari bat izan zen; bigarren urtez gertatu zitzaidan berdina. Zuhaitz bat margotu nuen. Normalean ez dut lan figuratiborik egiten, baina zuhaitz bat nuen aurrean eta hori egitea erabaki nuen. Nire keinua betikoa da; Keinuaren eta geometriaren artean deitzen da. Nik behatzen dut, ez dut ikusten dudana kopiatzen.

# Zarata txaranga, eskolatik kaleetara

Lakuntzako Herri Eskolaren baitan sortutako txaranga berriak duela pare bat urte jo zuen lehendabiziko aldiz. Lakuntzako udako festetako txupinazoa girotu zuen, eta gaur Herritik tira festen hasieran ariko dira ere musika ikaslez osatutako taldea

**E. R. B. LAKUNTZA**

Lakuntzako udako festetako txupinazoa txaranga berri batek girotu zuen: Zarata Txaranga. Lakuntzan sortutako txaranga honen berezitasuna haren kideak dira, herri eskolako musika instrumentuak ikasten ari diren ikasleak dira. Dena 2021-2022 ikasturtearen amaieran hasi zen, Amaia Razkin eskolako musika irakasleak azaldu bezala. Gaur, urriak 27, ostirala, hasiko dituzte Herritik tira festetan aterako da txaranga berriro.

"Zenbait guraso musikari gurasoen elkartekoekin hitz egin zuten ikasleek zerbait egiteko, eta lehenengo aldiz 2022ko ikasturte amaieran jo zuten". Hurrengo ikasturtean, 2022-2023an, Razkin eskolako musika irakasle hasi zen, "eta kontatu zidaten ikasturte amaieran jo zutela eta ikasturte nuen agian berriro egin genezakeela, eta eskolako Olenzeroren egunean kalejira egin genezakeela pentsatu nuen". Ikasle musikariek hitz egin zuten, abestiak erreparatu zituzten, eta Olentzero egunean atera ziren. "Hori izan zen gure lehenengo emanaldia eskolako txaranga bezala". Ondoren etorri ziren Inauteriak eta eskolan mozorrotzen direnean atera ziren ere eta ikasturte amaierako festan eta egunean ere aritu zen txaranga berria.

2022-2023ko ikasturte amaierako festarako txarangaren izena, logoa eta kamisetak mustu zituzten. "Ikasle guztien artean izena eta logoa erabaki genuen; bakoitzak logo bat ekar zezala eskatu genuen, eta bat aukeratu genuen. Kamisetak sortu genituen ere". Udan udaletxetik deitu zieten ea abuztuko festetako txupinazoa jotzea festatuko litzaienkeen eta bertan izan ziren. "Festa bereziak izan zirenez eta lehenago bukatu zirenez, asteburuan egin behar dituzte, eta ateratzeko esan digute". Zarata



Zarata txaranga Lakuntzako udako festetako txupinazoan. ARTXIBOA

## "2021-2022KO IKASTURTE AMAIERAN JO ZUEN LEHENENGO ALDIZ TXARANGA IZANGO ZENAK"

txaranga gaur, urriak 27, ostirala, 18:00etatik aurrera ariko da, festen hasieran.

Txarangaren berezitasun nabarmenena kideen adina da, baina txaranga baten errepertorioa jotzen dute: "Kalejiran jotzen direnak prestatu genituen, baita euskal dantzenak ere. Inauteriak zirenez, musika audio batean jarri beharrean, zuzenean jo genituen dantzak: *Esku dantza, Txulalai* eta kalejirako *Egun da Santimamiña, Bat bi hiru lau...*". Eskolako kide ohiek eta guraso musikariek ere parte hartzen dute txarangan. Guztira, hogeiki kide baino gehiago ditu, eta hai-zezko instrumentuak, perkusioa eta trikia eta akordeoiak jotzen dituzte. Baldintza bakarra Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik gorako ikaslea izatea da, "instrumentuan gutxieneko maila bat dutenak".

Txarangan parte hartze boluntarioa da, "nahi duena etortzen da", eta herri eskolaren inguruan sortu den txaranga den arren, entseguak eskolatik kanpo egiten dituzte. "Data bat gerturatzen joaten denean, pare bat aste lehenago, entseguak egiten hasten gara, arratsaldetan". Gaztetxoak "gogotsu eta ilusioz" egoten direla esan du Razkinek: "noiz entseatuko dugun galdetzen dute. Beste gauza batzuetarako tiraka ibili behar gara, baina honetarako prest daude. Aurreko entseguak ostiralean egin genuen, eta denak etorri ziren. Azkenean, etxean eta klasean jotzen duzun instrumentu hori kalean jotzea politena da, beste batzuekin, taldean, musika egitea". Oso txaranga gaztea da, eta kalitate "nahiko polita" du.

Razkinek azaldu duenez txaranga eragina izan du musika ikasketetan: "Ikasle txikiak ikusten dute zaharragoak txarangan ateratzen direla, eta asko animatu dira eskolaz kanpokoetan musika hastera, instrumentu jakin bat aukeratzera...". Eskolako txarangan jotzea helburu bihurtu da askorendako. "Gogoakutsatzen da".



BAZTERRETIK

ANNE AZKONA UNANUA

## Inflamazioa, puztuta sentitzea baino haratago

Inflamazioa puztuta sentitzea baino askoz gehiago da: zure immunologia sistemaren defentsa erantzun zelularra da, edozein "erasotzailer" aurrean... eta egunero gertatzen dena, izan ere, jaten duzun bakoitzean, umorez aldatzen duzunean, erreazio baten aurrean, eraso hautematen duzunean...

Bertan hainbat hormonak parte hartzen dute; adibidez, kortisola, histamina, estrogenoak... eta guztiak beharrezkoak dira osasunerako. Dosi txikietan efektu positiboak dituzte, baina X faktoreagatik horiek desorekatu eta gehiegi handitzen hasten direnean, orduan sortzen da inflamazio bat, akutua edo kronikoa izan daitekeena.

Akutua beharrezkoa da, eta iraupen laburrekoa. Egunero gertatzen zaigu, konturatzen ez bagara ere. Kronikoa aldiz, ez da konpontzen, eta gaixotasun kroniko gehienekin oinarrituko mekanismoa da. "itis" amaiera duten guztiak.

Inflamazioa behar duzu bizirik irauteko, baina ez duzu

inflamaturik bizi behar. Badakigu gure immunitate sistemaren %70 gure hesteetan dagoela, eta sistema immunologikoak inflamazioa kontrolatzen duela; orduan, inflamazioaren zati handi bat mikrobioak kontrolatzen duela esan genezake.

Elikadurari dagokionez, beraz, egokia litzateke landare jatorriko produktuetan oinarritzea, antioxidatzaile eta zuntz ugari baitute. Batez ere barazkiak, tuberkuluak eta frutak, kalitatezko proteinak kontsumituz, arrain urdinak lehenetsiz omega-3 edukitzeagatik, gantz osasuntsua (fruitu lehorrak, oliba olio, haziak, ahuakatea), lekaleak, espeziak eta neurri txikiagoan zerealak. Behar adina kontsumitu behar da, eta asetasun sentsazioan arreta jarrita, sasoiako elikagaiak kontsumituz eta barau luzeagoak edo afalordua aurreratuz.

Jaten duzunaz aparte, zenbat jaten duzun, nola, zenbatero, jaten duzunarekiko zein erlazio duzun ere funtsezkoak izango dira. Estresa eta emozioak kudeatzeko gaitasuna landu, eguneko mugimendu eta eguzki argiarekiko esposizioa handitu, eta loaren higieneari garrantzia eman behar zaio. Arazo honen aurrean, laguntza profesionala eskatzea funtsezkoa da.

## Bertsolari Txapelketan aurrera egin dute lau sakandarrek

Eneko Lazkoz Martinez etxarriarrak finalaurrekoetarako zuzeneko txartela lortu zuen, Leitzako saioa irabazita

SAKANA

Nafarroako Bertsolari Txapelketako azken finalaurrekoetarako jokatu zen urriaren 21ean, Leitzan, eta saioa ariketa puntuagarriak behin eginda, Eneko Lazkozek eskuratu zuen puntu gehien, 354,5, eta, beraz, saioa irabazi eta finalaurrekoetarako txartela eskuratu zuen. Haren atzetik Josu Sanjurjo (325,5), Saats Karasatorre (323,5), Endika Legarra (291,5), Bittori Elizalde (286) eta Fernando Zigan-da (278) sailkatu ziren.

Urriko 21eko finalaurrekoetarako fesearen azkena zen, eta, beraz,

finalaurrekoetan ariko diren hemezortzi bertsolarien zerrenda osatu zen, eta finalaurrekoetako saioetako lau irabazleei puntuazioaren arabera hurrengo hamalau bertsolariak gehitu zaizkie, tartean sakandarrek daudela. Hortaz, azaroaren 4an Altsasuko Iortia kultur gunean jokatu den lehenengo finalaurrekoetan Saats Karasatorre ariko da; Agoizko finalaurrekoetan, azaroaren 11n, Ekain Alegre eta Idoia Granizo ariko dira, eta azken finalaurrekoetan, Lesakan, azaroaren 19an, Eneko Lazkoz.





Zigor Gartzia Arregi 'Zian' bertso saio batean gai jartzaile lanetan. UTZITAKOIA

# "Txapelketa baten atzean lan talde handi bat dago"

**ZIGOR GARTZIA ARREGI 'ZIAN' BERTSO GAI JARTZAILEA**

Bertso saioetan aurkezlea izatea baino askoz gehiago da gai jartzailea izatea, atzetik ideiak planteatzen eta lantzen lan ordu asko dira

**E. C. M. eta E. R. B. ETXEBERRI**

Bertsolaritzaren munduan duela ez hainbeste sartu zen Zigor Gartzia Arregi Zian Etxeberrin bizi den gai jartzailea. 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketan Vianako finalaurdenean aurkezle izan zen, eta azaroaren 4an, larunbata, 17:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean izan den finalurrekoan gai jartzaile izanen da ere; maila horretako saio batean aritzen den lehenengo aldia izanen dela aitortu du.

**Nondik datorkizu bertsolaritzarako lotura?**

Bertsozale betidanik izan naiz, txikitatik edo gaztetatik. Egia da ez naizela sekula aritu. Bestelakorik ematen duen arren. Gazte garaian agian zerbait egin nuen,

**"GURE ARDURA BERTSO SAIOETARAKO GAIK PROPOSATZEA DA; GAIK NOLAKOA BEHAR DUEN IZAN"**

baina ez zen nirea, eta utzi nuen. Ni izatez kanpoko naiz, eta etorri nintzenean Irurtzunen bueltan mugitzen hasinintzen, Pikuxarren, eta Gabonetan bertso desafioak antolatzen ziren eta gaiak jarri beharra tokatzen zen. Bestetik, bertso eskola abian jarri behar zen ere. Duela sei bat urte izango da, ez asko. Horrela hasi nintzen. Zirikatatu ninduten bertso desafioan, hemen Etxeberrin festetan zerbait egin behar zenean esaten zidaten, eta Barañaingo lagunek ere zerbait egiteko eskatzen zidaten. Zirika-

tuta ikastaro bat egin nuen, eta gai jartzaile taldean hasi nintzen. **Dueta gutxi hasi zara, baina dagoneko saio askotan parte hartu duzu, ezta?**

Urte hauek emankorrak izan dira. Irurtzun, Sakana eta Barañain inguruan ibiltzen diren bertsolariei plaza emateko, bertso desafioa sortu genuen. Duela sei urte inguru gai jartzaile heldu nion Piku Gabonetan. Plaza eman behar horretatik Aixita bertso txapelketa sortu genuen ondoren. 2019an hasi nintzen Nafarroako Bertsolari Txapelketan saioaren bat aurkezten. Marino Izeta lehiaketan ere parte hartu izan dut. Bata bestearen atzetik joan dira; gustura.

**Nola antolatzen zarete gai jartzaileak?**

Bederatzi eta hamaika gai jartzaile gara taldean. Txapelketa baten atzean lan talde handia dago, jende asko dago arlo desberdinetan lanean, eta arlo bakoitza garrantzitsua da. Bakoitzak bere aletxo eman behar du. Gero talde antolatzailea dago, eta talde antolatzaile horretan gure gai jartzailetik ordezkari bat dago. Bederatzi eta hamaika lagun ez osatutako taldea izan ohi da gai jartzaileena eta gure arduragaik proposatzea da; gaiak nolakoa behar duen izan. Irizpide batzuk daude; ariketa desberdinak daude, ofizioak, eta ofizio bakoitzak bere aurkeztuko modua du. Egiten duguna da, hamaikon artean txapelketari begira zaku batean ideiak sartzen ditugu, bakoitzari burura etortzen zaiona ariketa baterako edo besterako planteatuta. Irailean asteroko bilerak egiten hasi ginen, eta ideiei forma ematen zaie. Saio pila bat dira, zortzi saio, eta aurretik lan asko dago. Orduan, lehenengo pausoa zakua betetzea da. Bileretan ikusten joaten gara: zortziko handikoan gaiak behar ditugu, zenbat dira balekoak? Baldin badira aurrera, ez badira batzuetan kanpora doaz; batzuetan gai onak dira baina beste modu batera planteatu behar dira. Lan nekeza da. Saio bakoitzaren atzetik denbora pila bat dago. Gaiak daudenean errazagoa

**"ALTSASUKO FINALERDI BAT DA; MAILA HORRETAKO NIRE LEHENENGO ALDIA IZANEN DA"**

da. Okerragoa da saio bat asteburuan izan eta zortziko txikira, esaterako, gaia falta dezan... Eskertzen da taldea izatea, bestela ardura oso handia da.

**Bertsolariek nondik joko duten aurreikusten duzue?**

Horregatik taldearen balioa. Bota dezaket ideia bat ustez bikaina dena, baina gero buelta ematen zaio eta zalantzan jar daiteke. Ariketa asko biren artean egiten dira, eta batzuetan haietako bat indartu dezakezu. Txapelketak duena da etengabe oreka bat bilatu behar izatea. Askoz errazagoa da plaza bateko edo edozein bertso saioko planteamendua, jolaserako aukera ematen du; ez duzu hain fin josi behar. Baina txapelketa batean asko dute jokoan, urduritasunak daude, eta gure partetik oreka hori bilatu behar dugu, eta ez da batera erraza. Saiatzen gara zertan kantatuko duten aurreikusten, baina aukera desberdinak daude gaiei heltzeko. Beste batzuetan ez da uste genuen bezain borobila. Nola formulatzen den ere garrantzitsua da. Oreka taula bat egiten dugu, eta saio guztiko ariketa guztiak bakoitzari defendatzea tokatzen zaiona jartzen dugu. Horrekin saiaten gara oreka egoten. Batzuetan gai batzuk sartu nahi ditugun arren, ez da erraza.

**Bizipenak, errealitatea, ala fikziozkoak izaten dira?**

Bizipenetatik badute, beste gauza bat da nola plazaratu. Batzuetan gertakariak izan daitezke, beste batzuetan fikziora jotzen dugu. Dena ez da fikzioa eta dena ez da errealitatea. Esaterako, Leitzan Palestinaren aldeko manifestazioa sartu behar genuela argi genuen. Oso errealitatekoa da, pil-pilean dagoen gaia, barrutik mugitzen duena, eta gure arriskuak hartu genituen. Baina ahal dela gauzak lotuta eta neurtuta eramaten ditugu.

**Vianan egon zinen, eta azaroaren 4an Altsasun egonen zara. Oholzatik oholtzara alderik bada?**

Altsasuko finalerdi bat da, eta ez dakit orain arte maila horretako saiorik aurkeztu dudan. Beraz, niretako koska bada. Desberdina da lagunarteko zerbait aurkeztu edo hau aurkeztu. Vianan gustura egon nintzen, guretako aretoa nolakoa den ere garrantzia du: ohol-tza gainera igo eta gustura sentitu. Vianan eman zen; areto bildua zen, gozoa, eta publikoa ere beroa dagoenean nabaritzen da.

# "Gau beltza egiten zela konzientziatu nahi dugu"

Urriaren 31ren garai batean ospatzen zen Gau beltza ohitura berreskuratzen ari dira zenbait herritan; lehenengotarikoa Irurtzun izan zen. 'Ibilaldi beltza' egiten dute. Arkaitz Martinez Mariñelarena Pikuxarreko kultur gintzako kidea da

**Erkuden Ruiz Barroso** IRURTZUN

## 1 Zer da Gau beltza?

Jakin dugunagatik orain Halloween bezala ezagutzen dena Euskal Herrian aitzinean ospatzen zen festa bat zen. Gau beltza edo horrelako izen bat zeukan. Badira hainbat koplak. Orduan, gu saiatzen gara ez berreskuratzeaz, azken finean ez dakigulako Irurtzunen zehazki ospatzen zen ez dugulako jakiterik lortu, baina haurrak eta helduak kontzientziatzea ez dela Halloween bakarrik, hemen zerbait egiten zela.

## 2 Eta hori nola egiten duzue?

*Ibilaldi beltza* egiten urte batzuk daramatzagu. Irurtzunen ditugun euskal mitologiaren pertsonaiak baliatuz, arimen mundua eta izakien mundua batzen dituzten antzezlan txoak egiten ditugu. Euskal mitologia eta kultura ere haurren artean sustatzeko.

## 3 Zehazki duela zenbat ure hasi zineten?

Pandemia aurretik hasi ginen. Pandemia garaian utzi behar izan genuen eta urte horietan zerbait xumeagoa egin genuen kultur etxean, distantziak man-



Arkaitz Martinez Basajaunez jantzita; iskidikoak 'Ibilaldi beltza'-n egonen dira. UTZITAKOIA

tenduz eta horrelako gauzekin, eta orain berritoki aurretik egiten genuena antolatzen hasi gara.

## 4 Zer esan nahi du horrek?

Printzipioz ideia kalean egitea dela, basoan, azken urtetan

euria egin du eta eskolan egin behar izan dugu. Baina hasierako ideia kalean egitea da; uste dugu egun horretan kalean ospatzeko gauza bat dela. Badaezpada B aukera bat bilatzen ari gara ere.

## 5 Nolako da 'Ibilaldi beltza'?

Ikusleak taldeka banatzen ditugu, ordu desberdinetan sailkatuta, eta pertsonaia batek harrera ematen die Ardanzetako xendan. Gipuzkoatik ekarri ditugun koplak abesten dira, eta ibilaldia hasten da. Mendian zehar ibilbide bat egiten da, eta lau edo bost geldialdi daude. Bakoitzean pertsonaia edo arima bat agertzen da, eta izaki mitologiko baten ezaugarriak eta istorioak kontatzen ditu. Sarreak aurretik erosi behar dira Pikuxarren.

## 6 Nortzuk parte hartzen dute?

Iskidiko pertsonaiak, Tramankuluko Igor eta Miren, Ion Barbarin eta Izaskun Mujika, Yurena Perez eta Lorena Arangoa aktoreek eta Pikuxarreko eta Aizpeako jendeak; apaintzeko, antolatzeke, zer edo zer egiteko, pertsonaiez janzteko...

## 7 Beldurrezkoa da?

Publiko guztiarendako da, baina tentsio puntu bat bilatzen da ere, beldur pixka bat ematea. Ibilaldian zehar sorpresaren bat sartzen saiatzen gara, eta jendeari esaten zaio sorpresaren bat egongo dela, tentsioa mantentzeko. Kalean egiten denez eta ordua aldatuta dagoenez, oso goiz iluntzen du eta bidea argitzeko kandelak eta farolilloak erabiltzen dira, beraz, ez dago argi askorik eta horrek ere laguntzen du tentsioa sortzen. Normalean txikiagoak direnak goizago joaten dira, argi gehiago dagoenean, eta helduagoi ilunago gustatzen zaie. Norberaren erabakia da.

## 8 Jendea mozorrotu daiteke?

Mozorrotzearena ez dugu inoiz eskatu. Hemen inauterietan mozorrotzen zen, baina egun honetarako ez dirudi. Ikertu denaren arabera, jendeak zerbait janzten zuen buruan, zaku antzekoak, baina mozorrotu ez.

## 9 Irurtzunen nola ospatzen zen ikertu duzue?

Bai, hasiera batean Gau beltzari buruzko ikerketa bat egiten hasi zen, izan ere, oso arraroa zen Halloween delakoa bat-batean etorri izana, eta hemen egun horretan zerbait ospatu behar zela iruditzen zitzaigun. Ez ginen bakarrak izan. Euskaltzaleen Topagunean ikerketak egin dituzte, eta azaltzera etorri ziren. Zerbait begiratu genuen, baina ez genuen ezer topatu. Orain pixka bat geldituta dago. Irurtzun asko aldatu da, eta sustraiak aurkitzea oso zaila da.

## 10 Ikerketa berreskuratuko duzue?

Momentuz daukagunarekin aurrera. Batez ere Gau beltzari buruz hitz egitea nahi dugu, ez bakarrik Halloween; gure gauza bat delako. Horretan ari gara. Urteren batean maskara eta kalabazak apaintzeko tailerrak egin ditugu, dirudienez hemen ere kalabazak apaintzen zirelako ere. Orduan gauza horiek egiten saiatzen gara. Baina gure helburua Gau beltzari buruz hitz egitea da; ea lortzen dugun ere hemendik zer egiten zen jakitea.

## 11 Tradizioa errotu duzue?

Jendea *Ibilaldi beltzaren* zain dago. Geroz eta jende gehiagok galdetzen du, eta proiektuak sustraiak bota ditu, momentuz.

**ZURE MARKA  
DESBLOKEATZEKO  
GAKOA  
DUGU**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



**gk**  
DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA

f o

619 821 436  
info@gomunikazioa.eus  
www.gomunikazioa.eus  
Foru plaza, 23-1. Asteasu